



Jose Ramón ARREGI

Ornozko su-hiltzailea

30 urtez egindako lanari esker ona agertzeko, omenaldia egin diote ornoztarrek. **USP 3**

4 Erreportaia: Hurrengo hiru urteetan 1.590 milioi Pta. izanen ditugu gure herrietan obrak egiteko

1997-99 Hirurteko Plana laster onartuko du behin-betizko Nafarroako Gobernuak.

28 Kirola: Plazaola Txirindulari taldea

Lehen denboradiari ekin berri diote Luis Vicente Otin leitzararen zuzendaritzapean.

Hamabi lantegik eskatu dute tokia Alkaiagako Industrialde berrian

Lesakako Herriko Etxeak jakitera eman dituen datuen arabera, dagoeneko 12 dira euren instalazioak Alkaiagan jartzeko interesatuta dauden lantegiak. Eskari hauek definitiboki gauzatuko balira, industrialde honek lantegiak jartzeko dituen 85.000 m² etatik 19.820 m² okupatuta leudekeen. Hamabi lantegi berri hauen jatorriari dago-kionez, 9 Baztan-Bidasoakoak dira, 2 Gipuzkoakoak eta bertzea Frantziakoa. Aktibidadeari begiratuz, ber-

Obra egiten 800 milioi pezeta erabili dira, eta dagoeneko, fabrikak altxatzeko dagoen eremu guztiaren %23,3 saltzeko hitzeman dago

tzalde, 6 industria sektorekoak dira, 3 biltegi eta banaketa arlokoak, 1 garraio enpresa eta bertze 2ak tailer eta salmenta arlokoak. Inaugurazioa martxoaren 18an egin zen eta Gobernu-ko agintariekin batera, Lesakak eta Berako alkateak egon ziren. **USP 10**



Lurraren prezioa 7.000 Pta./m²ko

Emilio Izquierdo, Nafarroako Gobernu-ko Industria Zuzendari Nagusiak lurra zenbaiten salduko den jakinarazi zuen inaugurazio ekitaldian. Metro karratua 7.000 Pta.tan salduko da eta ordaintzeko hamar urteko epea ere emanen zaio erosleari.



Erakusketa

Bidasoa karrika, 45 eta 60 • BERA Tfnoa: 948-630537



SERIEAN EGINDAKO MOBLEAK ETA BAITA NEURRIRA EGINDAKOAK ERE (Haritz, gerezi...)



FINANTZIAZIOA ZURE NEURRIRA

DATUAK.....

❖ 1967an Oronozko su-hiltzaile parkea egin zenetik hantxe aritu da lanean Jose Ramon Arregi. Hori dela eta herritarren omenaldia jaso zuen hilaren 8an.

❖ Mugairiko Mandazenean sortu zen orain 61 urte. Beraz, hemendik laura jubilatuko da. Alarguna eta borts seme-alaben aita da.

❖ Sute-garai honetan, sua eman baino lehen, koadrila polita biltzea eta baimenak eskatzea gomendatzen du.

❖ Beraien lana arras lotua dela dio. «Bapatean etortzen zaizu lana eta hemen egon behar dugu, larunbat eta igandetan, gau eta egun».

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
Josu INZIARTE



👉 Jose Ramon ARREGI Oronozko su-hiltzailea

“Ornozko parkean gabez bizpahiru su-hiltzaile egotea beharrezkoa da”

30 URTE BETE DITUZU SU-HILTZAILE LANEAN. ZER ALDATU DA ORDU-TIK GAUR EGUNERA?

Ni hasi nintzenean hiru lagun bertzerik ez ginen eta orai hemezortzi gaude Oronozko parkean. Ekipamendu aldetik Ford 8 kamioi bat bakarrik genuen. Orain, lehenbiziko ateraldirako Mercedes du, anbulantzia, bi Land-Rover, sute garaian gaudenez mendira gateko bi kamioi... Aunitz kanbiatu da. **AIPATU DUZUNEZ SUTE GARAIAZ GAUDE. MEN-**

DIA IDORRA DAGO, BAINA JENDEAK ZERBAIT GEHIAGO EGITEN AHAL DU?

Mendia zikin xamar dago, garbitzeko su ematen zaio eta gero eskuetatik aldegiten du. Sua pizteko, lehenik, koadrila polita juntatu behar da eta gero baimenak eskatu. Sute kontrolatua eginez gero aisa kontzen da.

ORNOZEN PROFESIONALAK; BERA, LESAKA EDO LEITZAN BOLUNTARIOAK... ZEIN HARREREMAN DITUZUE ESKUALDEKO BONBEROEN

ARTEAN?

Ikastaroak elkarrekin egin izan ditugu, denbora batean, eta erlazio ona dugu. Gu gan orduko, haiek han izaten dira, normala da, hurbilago baitaude eta hobekiago ezagutzen dute ingurua.

ORNOZKO PARKEAN GAUEKO TXANDARIK GABE EGON ZARETE ETA BERRIRO JARRI DUTE. BEHARREZKOA IDURITZEN ZAIZU?

Orain dela pare bat urte egon ginen, bai, gaueko txandarik gabe eta berriz ezarri zuten. Beharrezkoa dela iduritzen zaigu. Itxia egoten zelarrik etxera abisatzen zuten, baina hobe da bihiru laguneko turnoak parkean egotea. Suak ez du gaua eta eguna be-

reitzen.

ZER BEHAR DU BONBERO BATEK, ESPERIENTZIA EDO IKASKETAK?

Gogoia nahitaezkoa da eta esperientzia pixko bat baldin badu hobe. Mendira gan behar da; etxeetan sua itzaltzea lan txarra izaten da, eke gogorak izaten dira... Denbora batean okerrago, ez baikenuen arnasa autonomikoki hartzeko deus izaten, orain baditugu honelako gauzak.

MOMENTU TXARRAK ERE BIZIKO ZENITUEN LAN HONETAN, EZ DA?

Beti igoaltso, momentu txarrak eta onak izaten dira, akaso txarrak gehiago. Okerrena, seguraski, istripuetan ikusten dituzun egoera penagarriak.

▶ *“Mendia zikin dago eta su ematen zaio. Sua pizteko, lehenik, koadrila polita juntatu behar da eta gero baimenak eskatu. Sute kontrolatua eginez gero aisa kontzen da.”*



1997-99 Hirurteko Planean

1.590 milioi azpiegitura lanak egiteko

Nafarroako Gobernuak jakinarazi berri du 1997-99 Hirurteko Leku Azpiegitura plangintzaren barnean banatuko dituen diruen berri. Eskualdeari dagokionez 1.590.260.000 pezetako inbertsioak onartu dira, 127 milioi terdi gehiago ordezko lanak kontuan hartzen badira. Nafarroa osoan berriz, 15.722 milioiko inbertsioa eginen da, 17.154 milioi ordezko lanak gehituz gero. Nafarroako Gobernuak adierazi duenez, kopuru hauek udala, mankomunitate eta kontzejuetatik eskatutakoaren %31a da. Hau da, eskatutako hiru obretatik bat diruz lagunduko dute Iruñetik.

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: ARTXIBOA

Zenbait herrietan, ordea, kopuru hau nabarmenki baxuagoa da. Bera bezalako herri batean, adibidez, 2 milioi pezeta bertzerik ez dute jasoko Hirurteko planaren barnean, berez 90 milioi pezeta inguruko laguntza eskatua zutenean. «Kopuru hori despreziablea da» adierazi du Manuel Iriarte, Berako alkateak. Nafarroako Gobernuak kriterio hagitik konplikatua erabiltzen omen ditu, bonifikazio eta zigor ezberdinekin, eta guzti horiek egoki aplikatu diren ikusteko, azterketa egitea pentsatu du udalak. Ez da hobe Leitzako egoera. Hirurteko Planera aurkeztutako premiazko lanetatik ez du-

te bat bera ere onartu, eta aspaliditik onartua zegoena eta beste diru iturrietatik laguntza jaso duen depuradoraren lanak sartu ditu Nafarroako Gobernuak Plan honetan, «*eskuak garbitzeko*», Mikel Ilarregi alkatearen erranetan. Bere ustez «*beharrei baino beste interes batzuei gehiago begiratzen zaie*» dirua banatzerakoan. Udalean aurreko urteetan azaleratutako irregulartasunak eta erabaki politikoak egon daitezke, Ilarregi dioenez, Leitzak azken urteotan jasaten duen baztertzearen atzetik. Errekurtsoa eginen duten ez dute ofizialki onartu, baina horren aldekoa azaldu da leitzarra. «*Oso bide motza izaten dutela badakigu, baina ez gara ixilik geldituko*».

Arras bertzelakoa izan da Lesakako udalak jasotako laguntza. «*Eskatutako guzia jaso duen herri bakarra gara eta gure aldetik hagitz balorazio positiboa egin behar dugu, nahitanahiez*» dio Jose Luis Etxegarai alkateak. Europako Resider planetik ere laguntza dexente jaso zituzten, eta hortik kanpo gelditutako lanak aurkeztu zituzten Hirurteko Planerako. Aitzineko planarekin, ordea, nahiko haserre gelditu omen ziren Lesakan, «*hagitz inbertsio gutti jaso baikenuen*».

Urrozko udalean ere kontent egoteko arrazoirik bada, kasik eskatutako guzia hartu-baitute. «*Bide puska bat egitea bakar bakarrik gelditu da kanpoan eta hori ere, gure kontura egiteko asmoa dugu*» dio Ignacio Urroz alkateak. 77 milioi terdi jasoko dute eta, noski, balorazio arrot positiboa egin dute. Diru dexente jasoko dute eraberean Donamarian (ia 28 milioi) eta Aranon (26 milioi terdi).

Oraindik proiekturik ez daukan zaborren tratamendu zentrurako 184 milioi onartuak

Udal eta kontzejuetaz gain, Mankomunidadeek ere laguntzak hartuko dituzte Azpiegitura Planean, eta garrantzitsuenak Malerrekako eta Bortzirietako Hiri-Hondakin edo Zabor Mankomunidadeek eta Baztango Balleko Etxeak zaborren Tratamendu Zentrua egiteko jasoko dituzten 184 milioiak, 160 aurten eta gai-



1997-99 HIRURTEKO AZPIEGITURA PLANGINTZA (ESKUALDEKO DATUAK)

PLAN NAGUSIAK

Ur-hornidura lanak	271.000.000
Ur-hornidura lanak (ordezkoak)	(+15.000.000)
Erreka garbiketa eta saneamenduak	438.480.000
Zabor tratamendua	184.000.000
Zabor bilketa	40.139.000
Denetara.....	933.619.000
	+ 15.000.000

HERRI PROGRAMAZIOA

Herrietako ur-hornidura eta saneamendua	135.784.000
Ur-hornidura eta saneamendua (ordezkoak)	(+16.739.000)
Elektrifikazioak	56.646.000
Elektrifikazioak (ordezkoak)	(+13.241.000)
Argiteria	28.827.000
Argiteria (ordezkoak)	(+38.760.000)
Zoladura lanak	135.610.000
Herriko Etxetako moldaketak	5.803.000
Herrietako bideak	293.971.000
Herrietako bideak (ordezkoak)	(+43.702.000)
DENETARA.....	656.641.000
	+ 127.442.000

1997-99 AZPIEGITURA PLANA

GUZTIRA ONARTUTAKOIA.....	1.590.260.000
ONARTUTAKOIA + ORDEZKOAK	1.717.702.000

nerako 24ak datorren urtean. Malerrekako Mankomunitateak egin zuen eskaria eta hasiera batean Baztango udala ere sartua dago, eta etorkizunean, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea ere sartuko litzateke. Miguel San Miguel, Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak eta Doneztebeko alkateak dioenez, «*zaborren arazoari behin betiko soluzioa eman nahi izan diogu. Soluzio honekin Baztaneri ere irtenbidea eman nahi zaio eta gero Bortzirietako Mankomunitateari. Momentu honetan, zonalderako alternatiba ezberdinak lehiaketara ateratzeko baldintza plegua egiten ari dira, 1997-99 Hirurteko Planean egin ahal izateko*». Beraz, oraindik ez dago proiektu finkorik eta ezin da zehaztu non kokatuko litzatekeen Zaborren Tratamendu Zentru hori.

Bertzalde, Doneztebek jasotako arras balozario baikorra egin du San Miguelek. «*Udalak erakutsi duen gestio ahalmena baloratu du Nafarroako Gobernuak*». Eraberean, azpiegitura lanak probetxuz, herrigunean gasa sartzeko asmoa dutela adierazi du Doneztebeko alkateak.

Baztango Balleko Etxeak ere diru parrasta ederra jasoko du, zaborren tratamendu eta bilketarako eskuratuko duena alde batera utzita, 565.183.000 pezeta ailegatu-ko baitira Nafarroako Gobernutik. Patxiku Oizartabal alkateak nahiago izan du balorazioerik ez egitea, kopuruak lasaiago aztertu eta Aldizkari Ofizialean argitaratu artean.

Nafarroako Gobernuak: «Kriterio egokienak dira»

Bistan denez, erakunde batzuk diru dexente jasoko dute, gutxiago bertzek eta batera ez gainerakoek. Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuko bozeramaileak prentsaurrekoan adierazi zuenez, «*gure kriterioak ez dira denek gustukoak, baina egokienak dira*». Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte ez da ofiziala izanen 1997-99 Hirurteko Azpiegitura Plana, baina Prentsa Bulegotik jakinarazitakoaren arabera, ez da aldatuta haundirik izanen eta %97an bederen, bere hortan

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttiipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

http://www.encomix.es/ttiipi-ttapa

e-mail:

ttiipi@encomix.es

e-mail:

ttiipi@mail.sendanet.es

zendaria: Joxemanuel Iri-

ien. **Publizitatea:** Miren Kar-

ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

ozena, Asier Gogorza, Joxe-

manuel Irigoien. **Administrazioa:**

maia Goia. **Erredakzio taldea:**

ello Apezetxea, Juainas Paul,

istina Boan, Bittori Telletxea.

erriemaileak: Joseba Azpiroz,

teban Arozena, Juana Mari

izar, Ainhoa Mutuberria, Iban

asi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-

rena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

ste, Pablo Mendiburu, Joseba

arabide, Alizia Olaizola, Mar-

ri Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

l Gerendiain, Jacqueline, Eli-

bet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

er Txoperena, Pello Apezetxea,

or Arozena, Kristina Boan.

laboratzaileak: EHNE Nafa-

ria, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

er Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

tiipi-ttapa ez du bere gain har-

ren derrigorrez, aldizkarian adie-

ritikotako erranen eta eritzien eran-

tzukizunik.

akunde Laguntzaileak: Be-

leitz, Goizueta, Areso, Baz-

n, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortziritetako Eus-

tera Mankomunitatea, Malerre-

ko Zerbitzu Mankomunitatea,

garramurdiko Akelarre Elkar-

...

GAURKOTASUNEN GAIA

Hirurteko Azpiegitura Plangintzaren balorazioa

Nafarroako Gobernuak onartu digun dirutza mesprezagarria da



Manuel IRIARTE
Berako alkatea.

Oraindik ofizialki deus iritsi ez bazaigu ere, badirudi bi milioi ber-

terrik ez dutela emanen eta kopuru hori, eskaria 90 milioi ingurukoa zela kontuan hartuz, mesprezagarria da, hagitz eskasa. Gure beharrak haundia goak dira. Hau konfirmatzeko tan errekurritzeko asmoa dugu, injineru bat hartu eta txosten bat egin beharko dugu, zein baremo kontuan hartu dituzten ikusteko. Azken Planean laguntza haundia izan genuela kontra genuen, baina zerga-presio haundia eta herriaren premiak ikusita laguntza gehiago espero genuen. Zenbait lan, halere, Nafarroako Gobernuak diru hori gabe hasi beharko ditugu, ikusiko dugu nola. Ezin dugu bertze lau urte esperatu, gero Iruñetik dirua emanen duten segurtasunik gabe, gainera. Nafarroako mendialdea diskriminatua dagoenaren kezka izan dugu beti, baina zein balorazio egin duten aztertu beharra dugu. Berariaik matematikak agintzen duela diote, baina ez dakit hori horrela den. Halere, ez dut uste gibelatik erabaki politikorik dagoenik.

Egiazko beharrei baino beste interes batzuei gehiago begiratzen zaie



Mikel ILARREGI
Leitzako alkatea

Udaletxe mailan ez dugu deus komentatu oraindik, berri ofizialik ez

dagoelako, baina prentsan ikusitakoa konfirmatzekotan, garbi dago ez digutela inbertsio bakar bat ere onartu. Aspalditik onartua zegoen lan baterako, depuradorako alegia, 172 milioi sartu ditu Nafarroako Gobernuak eskuak garbitzeko, aitzaki bezala. Berez, premiazko lanetarako Hirurteko Planetik ez dute deus eman. Ez dakigu zein motibo dauden horretarako, behar bada Kontu Ganbarak ateratako irregulartasunekin zerikusia izan dezake. Joan den urtean polikiroldegarako laguntza eskatu genuenean, hori adierazi ziguten, irregulartasunak argitu bitartean ez zela laguntzarik izanen. Ez dakigu politika berarekin segitzen duten, baina aurrean ere ez dugu laguntzarik izanen. Garbi dago Erribera aldera eta dirutza gehiago joaten dela, topiko gehienak bezalaxe egiazen arrazoitxo bat badago hor. Baina ez da hain urrutiko johan beharrik, Lekunberriren adibidea ikustea besterik ez dago, 900 biztanle izanik zer nolako azpiegiturak dituen.

Gestio ahalmena eta kapazidade finantzieroa baloratu digute



Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea

Herriko Etxetik egin behar dugun balorazioa arras positiboa da, he-

rriaren erdialdean behar haundiko lanak egiteko aukera emanen baita. Nafarroako Gobernutik hagitz finantziarioz aldea eskaini dute. Ez dago adarrik Herriko Etxean egin dugun esfortzua eta gestio ahalmena eta bere kapazitate finantzieroa positiboa baloratu dutela. Hone-la, Herriko Etxeak hartu dezake Nafarroako Gobernuak ordaintzen ez duena estaltzeko ardua. Gainera, Herriko Etxearen nahia gasa sartzea da, azpiegitura lanok egingen direla probetuz, bertze Herriko Etxeetan egin den bezala. Horretarako, gai honetaz arduratzen diren enpresekin bilerak izaten ari gara, nere idurikoz arras interesgarria den zerbitzu hau emateko. Herritarren iritzia ere sondeatu dugu eta erantzun ona eman dute. Eskatu eta emandakoa kontuan hartuz, erran daiteke %60 eta %80aren arteko subentzioa izanen dugula eta oraindik Nafarroako Gobernuak erabat onartu gabe badu ere, %70 ingurukoa izanen dela pentsatzen dugu.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta



BOTA BERTSOA



Udaberria iritsi zaigu

Asier ETXEPETELEKU

Neurria: Zortziko haundia

Egunsentian esnatu eta txori kantak belarrira kanpora irten eta mendian loreak ageri dira eguzkiaren lehen izpiak azaltzen dira argira nabaritzen da iritsi dela udaberriko dizdira.

Gazte guztiak segitu nahirik maitasunaren haria gisa hortako gauzetarako inor ez denez nagia bere maitean bihotz erdian egin nahirikan kabia udaberriak ekartzen bait du maitasun loraldia.

IRAKURLEAK MINTZO

Agurra Mexikotik:

Gaur Internet-ean nenbela zuen aldizkariarekin topo egin dut, eta ilusio handia egin dit herri guzti hoietako informazioa irakurtzeak. Atal guztiak irakurri ditut, eta horien artean Irakurleak Idazle atala ere. Ez dut uste nere kasua denik interesatzen zaizuen, izan ere urte baterako soilik nago printzipioz hemen. Hala ere asko dira ezagutzen ditudan euskaldunak Mexikon, eta zuen intereserako gehienak Baztan, Malerreka eta Bortzirietakoak dira. Hauek oso gustura erantzungo lieke zuen galderari, baina arazoa da Mexiko D.F.ko euskal etxean biltzen direla, eta ni beste hiri batean nago (San Luis Potosi). Hala ere saiatuko naiz ahal dudanean, D.F.en nagoenean, Euskal Etxera bisita egiten.

Zuen galderari erantzutea nahi baduzue jarri nerekin kontaktuan zuzenbide honetan eta gustura erantzungo dizuet. Jakin ezazue faltan gehien botatzen dudan lekuetako bat Nafarroako ingurune hori dela, izan ere asko ibili naiz hor mendiz eta bizikletaz. Agur bero bat eta laister arte.

IKER (MEXIKOTIK)

PAILERIA@DNSL.INTERMEX.COM.MX



Okerrak zuzentzen:

Azken TTIPI-TTAPAN, 201. alean, 11 Galdera Labor izeneko

salean oker bat egin genuen lehenbiziko galderan. "Saratik ihes egiten dut" erantzuten duenean, "Saratat ihes egiten dut" beharko luke.

TTIPI-TTAPAREN OHARRA



Korrikaren balantzea:

Pasatu berri zaigu 10. korrika eta balantzea egitekotan arront positiboa egin behar dugu. Jendea lanean fin aritu da. "Korrika kultural"ean 18 ekitaldi arrakastatsu antolatu dira gure herrietan. Jende pilo batek lagun du du, "Korrika lagun" eginez,

kilometroak erosiz, ekitaldientan parte hartuz...eta korrika iritsi zenean laster eginez. Benetan ederra izan da errepi-deetan eta herrietan euskararen alde horrenbertze jende ikustea.

Baina jakin badakigu zenbait jenderen barrenean halako sentsazio zamin-gozoa gelditu dela; izan ere, Sunbilla-Igantzi tartean bereziki korrika azkarregi joan zen eta ezinean ibili baitziren.

Hau dela eta, korrika "konpetizio" bat ez dela gogoratu beharrenean gaude. Korrika euskararen alde aldarrikapena egiteko eta laguntzeko modu bat da, denok elkarrekin egiten duguna, zahar eta gazte, neska-mutiko, gizon-emakume, kirolari ahaltsu eta zorrohaundi bestazale. Horregatik denon erritmoa errespetatzea hain da garrantzitsua. Lekukoa, gure hizkuntza nazionalaren lekukoa, aintzinean doalarik.

Horrenbertze jende eta hain luzea den gisa honetako ekitaldi batean akatsak suertatzea normala da, intentzio txarrik gabe eginiko akatsak. Hurrengorako denok badugu zertan hobetu eta hobetuko dugu. Zinez zorianak denei, Korrika ederra gozatu dugu. Milaesker! Eta orain, egunero euskara ikasi, erabili. Hitz bitan, euskaraz bizi.

BORTZIRIETAKO KORRIKA BATZORDEA

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutum hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Gure soinu atseginez gozatu zure elkarteetako ospakizumetan ezkontza, sagardotegi, jauntarte eta herriko jaietan

PANDEROA-TRIKITRIXA BAJUA-GITARRA

T R I K I T R I X A T A L D E A



© 948-637907 (Lesaka)
© 943-493007 (Oiarzun)

Deitu eta hartu gure aukera

triki troko

Haur eta gaztetxoan arropa (0tik 16 urtera)

Tfnoa/faxa:
943-619634
Juan Arana galeria, 10
IRUN

Jaioberriendako artikuluak:

Seaskak, kapazuak, saskiak, haurkotxeak eta zure haurtxoarendako behar duzun guziaz.

mugan
Mugan Elkarteko komertzioa

Bisita gaitzazu, harrituta geldituko zara.

 **Jose Mari ARRAZTOA** Elizondoko soziologoa

Herrietara, baina lan aukera egokiekin!



Migrazioa, helburu konkretuak lortzeko (adib: edukazio maila altuagoa, lan hobeagoa, etxe erosagoa, ingurune atseginagoa...) tresna bezala ulertua izan daiteke, gizakiek beren bizitzaren zati haundi bat xede hoiengibeletik pasatzen dutela kontuan hartzen badugu.

Herri ttikietan ikus daitezkeen pertsonen artean, ikasketengatik edo lan bila herritik ateratzen direnak eta hiririk herrira lanera

etortzen direnak hagitz ezagun egiten zaizkigu. Ez dugu ahortzi behar, zonalde bateko etorkizun demografikoak lotura zuzena duela garapen ekonomikoarekin. Horregatik, hirirako migrazioa zabalagoa da alderantzizkoa baino.

Herri ttikietara etorri direnetaz solastean, oharituko gara herrira etortzea beren borondatez aukeratu dutenen eta bortsaz egin dutenen artean integrazio maila ezberdina ematen dela. Nekazal mundura etortzeko bortsazko arazoak, lanaren ingurukoak izan ohi dira, destinu aldaketak, plaza bat atera dutelako... asteburuetan herrian gelditzen diren edo ez, herriko ekintzetan parte hartzen duten edo ez, beraien integrazio mailaren erakusgarri dira.

Bere gogoz etortzen direnak ez dira lan-arrazoientzat (enpresa bat martxan

paratu, adib.) soil-soilik etortzen. Hiritik aldegin eta nekazal munduan bigarren etxebizitza izatea, osasun arazoak edo nekazal ingurunean moldatzeko gogoia izan daitezke bertze faktore eragileak. Bizi kalitate hobearen bila, azken finean.

Ingurune berriari aurre egiteko modu bat, jatorri kultural eta geografiko berdinak dituzten pertso-

Ez dugu ahortzi behar, zonalde bateko etorkizun demografikoak lotura zuzena duela garapen ekonomikoarekin.

nekin elkartzea izan ohi da. Jatorri berdineko edota lehenagoko etorkinak pilatzen diren esparruak izatean, errexena izaten da jokabide hau hartzea. Horrelako esparruak sortzean migrazioak gora egitea gerta liteke, etorkin berriek ezezagunari dioten beldurra ttikitzen duelako. Jatorri berdintsuko pertsonekin topo egiteak hasiera batean egokitze lanak arintzen baditu ere, luzera, elkartzeko joera honek ingurune berriaren asimilazioa eta integrazioa mantsotu egiten du. Gaur egun, hezkuntza, ekonomi eta komunikazio azpiegiturak (karreterak, Belateko tunela...) hobetzeaz gain, telelengintza bezalako produktibo modu berriak sortu dira, eta guzti honek nekazal guneetan gelditzeko joera indartu dezake, baldintza hoiak hobetzerako joera indartu dezake, baldintza hoiak hobetzerako joera balute bederen.

 **Mattari ALTZUARTE** Aniztik

Itoiz: zer demontre da hori?



Itoizko lur eder hoietan presa haundi bat egitea erabaki zuten garai hartako jauntxoek, Urralburu eta Aragon buru zirelarik, erriberatarrei ziri ederra sartu zieten bertan bilduko zen ur guzia Nafarroako erriberako lur triste (idorra) haietan eztaikit zenbat Hektarea urreztatze erabiliko zela erratean. Baina erriberatarrei inork ez zien erran nola, noiz, ze dirurekin eta lur haietatik aterako zen fruitua non eta ze prezioan salduko zuten. Gobernuak diru aunitz badute, baina zenbait aldiz (gehienetan) harrika botatzen dute, ez badute bere sakeletara sartzen bederen (bertzen diruekin errez egiten ditek nahi ditena, urde ustelak).

Korruptzio eta zerrikeriaz gainezka, dirua barra-barra ibiliz, papoak ongi gizenitzen dituzten bitartean, Nafarroako langile guzietan bizkar. Ura Nafarroako dela diote, baina non dago idatzia ur hori zertarako den? Nork ordaindu behar ditu kosteak? Erran dezatela esparragoak, tomateak edo zer demontre landatzeko erabili behar duten ur hori, ez al da izanen melokotoi gehiago egin eta gerio lurperatzeko orain pasatzen den bezala. Jauntxo horiek uste dute hemen jendea tontoa dela, baina ez, hainbertze ustelkeria ateratzen den he-

nean jendea oharitzen arida Itoizko gezur haundi honetaz.

Badu urte bat Entzutegi Nazionalak (epaileak) urtegi hau ilegala zela erran zuela, ez baitzukan inongo planifikaziorik, justifikaziorik eta lurrari kriston kaltea egiten diolako. Baina tira, aintzinerat segitzen dute diru publikoa temazukeriaz botatzen. Arroyo izeneko katedra-

Itoizekoa izugarritzko diru botatzea da, lurrari kalte gogorak eginez eta zertako? Jatako.


tiko baten estudioak dienez, obra honek Nafarroari (ikus zeroak) 150.000.000.000 pezeta zorrak utziko lizkioke. Gaur egun erregadio Hektarea bat errentagarria egiteko milioi t'erdiko kostea badu, erriberako erregadio berriak 4 milioitiki goiti kostako litzateke, eta honek erran nahi du inondik inora ere ez dela errentagarria izanen.

Bertzetik, ura ez da Nafarroarendako, Levante eta Mediterraneorako baizik, hango lurak eta turismo instalazioendako, hori da egia. Denborak erranen du (ez baita eginen).

Bitartean gauza bakarra gelditzen zaigu, beren gezurrei kasurik ez egitea eta jendeari egiazko informazioa ematea baktokak pentsa dezala horren araber. Lerro hauetatik Baztan Bidasoako jende guzitari Itoizen defentsan, Iratiko lurren defentsan ahal duena egiteko eskatuko nioke.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



«Diario de Noticias» 97-3-11

«Igo zirenean, adin berdintsukoak eta lagun koadrila ziren denak. Orain taldekideak dira. Ez dago horrenbertzeko konfidantzarik. Mutilak nahiko itxiak dira eta ez dute hainbertze solasten».

Javier AMIANO
Baztan futbol taldearen entrenatzailea
Diario de Noticias 97-III-11

baina handik atera eta sakabanatuta gelditu ziren, hemen ez baitzegoen bertze aukerarik. Horregatik sortu genuen Bortzirietako Bertso Eskola».

Manolo AROZENA
Bertsolaria
Nafarkaria 97-III-21

«Bertsolaritza ikastolan ezagutu zuten hurrek,

◆ **Zerk eraman zaitu Ingalaterra aldera?**

❖ Kanpora ateratzeko eta inglesa ikasteko gogoak.

◆ **Han geldituko al zinateke aukerarik izanez gero?**

❖ Urte pare bat bai, baina, biak ezagututa nahiago dut nere herria.

◆ **Zer da zure ustez inglesen gauzarik hobereena?**

❖ Gauzak behar bezala antolatu eta egiten dituztela.

◆ **Eta txarrena?**

❖ Edukatuak direla diote, baina, badakite hagitx desatseginak izaten ere.

◆ **Ongi hartzen al dituzte kanpotarrak?**

❖ Bada denetik, baina orokorrean ongi.

◆ **Hango zein janari duzu gustokoena?**

❖ Arratsaldean tearekin hartzen duten «scones» goxokia izugarri gustatzen zait, mermelada eta kremarekin batera.

◆ **Hemen baino ilusio gehiagorekin leitzen al duzu han TTPII-TTAPA?**

❖ Bai noski, kanpoan egonik bertako berriak gehiago estimatzen dira.

◆ **Zer da lehenbiziko leitzen duzuna?**

❖ Urtebetetze argazkiak, harremanak, Igantziko berriak eta gainerakoa.

◆ **Solastu al zara inglesekin euskarari buruz?**

❖ Bai, aunitzetan. Harritu samarrak gelditzen dira, gehienek ez baitzekiten bazenik ere.

◆ **Zer da Ingalaterrara joateko etxean inoiz utziko ez zenukeen gauza?**

❖ Despertadorearekin obsesionatu samarra ibiltzen naiz joan aldiro.

◆ **Azken bidaia al da oraingoa?**

❖ Titulua atera eta azkena izatea espero dut.



Kunde SEIN ETXEBESTE
Ingalaterran inglesa ikasten
IGANTZI

J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA



**Ostargi
Optika**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

ttipi-ttapa

☎ 631188

PIKABEA

Molinero drogerian galdetu


pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27



Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

Alkaiagako industrialdea martxoaren 18an zabaldu zen ofizialki

Dagoeneko hamabi enpresek lekua eskatua dute bertan

Martxoaren 18an zabaldu zen ofizialki Alkaiaga auzoko industrialdea. Ekitaldian, Bera, Lesaka eta Etxalarko udal ordezkariekin batera, Emilio Izquierdo, Nafarroako Gobernuako Industria saileko Zuzendari Orokorra izan zen.

181.610 metro karratu ditu industrialdeak, horietatik 85.413 industri erabilera izanen dute, 27.690 metro bideak dira eta gainerako 57.282 metroak berdeguneak dira. Gaur egun saldutako partzelarik ez badago ere, hamabi enpresek lekua eskatua dute industrialdean. Horietatik 9 eskualdekoak omen dira, 2 Gipuzkoakoak eta bertzea Iparraldekoa. 6 industri-sektorekoak dira, 3 biltegi edo banaketa lanak egiten dituztenak, 2 tailer eta garraio enpresa bat. Dagoeneko %25a hartua dagoela erran daiteke, saltzera aterako diren 45 partzeletatik 13 eskatuak baitaude. Metro karratua 7.000 pezetan salduko du Nafarroako Gobernuak.

Jose Luis Etxegarai,



800 milioiko inbertsio baten ondotik, dagoeneko industri-partzelen % 25a inguru eskatua omen dago

Argazkia: Aitor

Lesakako alkateak erran zuenez, industrialdea egiteko nahia «CSI lantegiaren berregituratzearen ondorioz sortutako kezkarengatik etorri zen. Espero dugu orain industriad betetzea eta lanpostuak sortzea».

Alkaiagako industrialdeko lanak Ferrovial, S.A. enpresak egin ditu bi urtez, Patxi Txokarroren proiektuaren

arabera eta 800 milioi pezeta inguruko inbertsioa ekarri du.

INBERTSIOAK CSI ETA FUNBERAN

Industrialde berria inauguratzeaz gain, Industri saileko Zuzendari Nagusia CSI-Transformados eta Funbera enpresen etorkizunaz aritu zen Lesakan emandako prentsaurrekoan.

Lesakako lantegiari

dagokionez, datozen urtetan «teknologikoki aintzindari izaten segitzeko» 3.500 milioiko inbertsioak eginen direla eta pribatizazioaz arduratuko den talde teknologikoak «lantegiaren bideragarritasunari eutsiko diola» ziurtatu zuen. Berako lantegiaz berriz, «ibilgailuen sektorean sartzeko errekonbertsioa» behar duela erran zuen.



Xorroxin irrattia entzulegoa hobe ezagutzeko inkesta burutzen ari da

Xorroxin Irratiak TTIPI-TTAPAREN aurreko alean argitaratu zuen gehigarriaren barnean, bere entzulegoaren gustuak hobeki ezagutzeko inkesta plazaratu zuen.

Inkesta bete eta maiatzaren 1a baino lehen ailegatu behar du Xorroxinera, horretarako espreski dagoen kartazalean sartuta (ez du posta zigilurik behar). Jasotako inkestaren artean zozketa eginen da maiatzaren 5ean, eguerdiko 2etan Xorroxin Irratiko Herriz Herri saioan.

Erantzuten dutenen artean bi sari zozketatuko dituzte, bakoitza 25.000 pezetakoa. Sariak eskuratzeko 30 eguneko epea dago, horretarako 581226 telefonora deitu behar delarik.

Dia % Autozerbitzua deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

TOP CLASS ENGLISH



INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK

Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESACA • Bihirra Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerdia Beran egitea proposatu dute

Bertso saioa Azaro aldera eginen litzateke Eztegarra pilotalekuan

ASIER GOGORZA

Aurtengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalerdietako bat Beran egitea proposatu diote Euskal Herriko Bertsozale Elkartek Berako alkateari. Honen erantzuna baiezkotzea izan zen hasiera batean, kulturako zinegotziarekin solastu behar bazuen ere. Arazo bakarra aurtengo kultura aurrekontuak finkatzeko Kultur Batzordearen bilera egina dagoela, eta kulturarako zegoen dirua banatua. Hala ere, Bertsolari Txapelketa batek duen garrantzia ikusita, diru falta hori nolabait ere moldatuko zutela erran zigun alkateak.

Bertso saioa Azaro aldera da egitekoa, eta aukeratu duten lekua, Eztegarra pilotalekua da. Bertzetik, Euskara Batzordeak bere laguntza osoa eskeini dio Bertsozale Elkarteari, antolaketa lanetarako. Josema Leitza, azken elkarte honetako idazkariak aipatu digunez, «Bortziriak aukeratu genuen, Nafarroako bertsolari eta bertsozale gehien biltzen dituen zonaldea delako, eta Bera, Bortzirien barnean egokiena iduritu



zitzailakoz».

Lerro hauek idazterakoan erabakia ez da segurua, ez baitago baieztatzerik udalak Bertsozale Elkarteari proposamena onartuko duen ala ez. Kulturako zinegotzia den Patxi Alzugurenak «zaila dago, kulturarako presu-puestoak onartuta daudelako» erran digu.

Ikastola berria

Jende aunitz bildu zen ikastola berriaren inaugurazio ekitaldietara. Argazkietan ageri den bezala denetik izan zen; aureskua, akordeoilaria... Giro ezinhoba bizitu zen bertara hurbildutako ikasle, irakasle, guraso eta ikasle-ohien artean. Gaztetxoek, larunbat arratsaldean Alzateko frontoian egin ziren Haur Jokoetan parte hartu ahal izan zuten.

Apirilan hasiko diren Gazte Jokoak antolatzeke batzordeak osatu dira

Iazko Gazte Jokoek izan zuten arrakasta ikusita, aurtengo ere dinamika berdinari segida ematea erabaki dute antolatzailleek. Iamotenean egindako bileran argitu zuten, aurtengo erronka nagusia antolaketa parte-

hartzaileen esku uztea da eta horretarako 6 batzorde osatu dira, eginen den proba bakoitxeko lantalde bana, eta bertze bat publikidade lanetarako. Apirilaren 24an hasi eta maiatza bitartean luzatuko dira Gazte Jokoak.

flash

- ◆ **Agara armadendak**
Espainia mailako diploma bat jaso zuen martxoaren 2an Bilboko Nazioarteko erakustazokan burututako Arma Ferian, «*armagintza sektorearen hobetze eta indartzearen alde egindako lanagatik*».
- ◆ **Joan da Korrika**
Asteburu honetan Bilbon egindako ekitaldiekin bukatu da aurtengo Korrika. Beratik ere pasa zitzailakoz, eta nahiz ordu txar xamarrean izan (goizeko letatik aitzin), jende aunitz bildu zen Berako karraketan barna Korrikarekin bat egiteko.
- ◆ **Jose Luis Telletxearen**
askatasuna ospatzeko afaria egin zen San Jose egun bezperan Iamotenean. Pozik egoteko arrazoiak izaki, elkartu ziren 60 lagunek giro ederrean afaldu zuten, Jose Luisen omenez.
- ◆ **Ikastola berriaren**
inaugurazioan aspaldiko bideo eta diapositiben emanaldia egin zen, eta haren arrakasta ikusita, berriaz botatzea erabaki dute. Beraz, bigarren aukera izanen duzue bertan egon ez zinetenek. Eguna finkatu gabea bada ere, jakinaraziko zaizue.

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

LOZOTEGI-JASONE
Alzate, 19 • 630786 • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

Beti Gaztek 8,7 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten

Futbol zelai berria abuztuan zabalduko omen da

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak 8.787.000 pezetako aurrekontua izanen du aurten, urteko batzar orokorrean onartu zenez. Futbol sailak 4.340.000 pezetako gastuak sortuko ditu eta 3 milioi terdiko sarrerak; txirrindularitzak 480.000 irteeretan eta 300.000 pezeta sarreretan. Gainerako kirol eta kultur iharduerek balantze orokatu xamarra izatea espero da. Dirulaguntza ezberdinen bitartez 1.800.000 pezeta lortzeko asmoa du elkarteak eta bazkideen kuotaren bidez, 1.236.500 pezeta.

Joan den urtea 459.354 pezetako superabitarekin akautu zuten Beti Gaztek, bazez ere sokatira taldeak



Futbol-zelai berriaren lanak aitzinera doazi, baina abuztura arte ez omen da ofizialki zabalduko

Argazkia: Aitor

Munduko txapelketarako bidaia ordaintzeko egin zituen erakustaldiak esker. Iaz egindako eta aurtengorako aurrakusiak dauden ekitaldien ondotik, batzarraren eztabaidatu zen

gai interesgarrienetako bat, udal futbol zelai berriaren lanen egoera izan zen. Salvador Iantzi lehendakariak erran zueenez, lanak gibeleratu dira, baina maiatza alderako bukatzen ahal di-

ra. Halere, inaugurazio ofiziala ez omen da abuztura arte egingen.

14 urtez zuzendaritzan egondako Jose Luis Sunsundegik utzi badu ere, batzordean ez da aldaketa haundirik izan.

XIV. Txoko-Txiki Ipuin eta kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu du ikastolak

Tanturumairu ikastolak hamalagarren urtez antolatutako Txoko-Txiki ipuin eta kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago apirilaren 14a arte. Lehiaketa 6 eta 12 urte arteko Lesakako ikasleei zabaldua dago. Lanak ohiko sistema erabiliz igorri beharko dira ikastolara,

idazkera ulergarri eta txukunarekin.

Ipuinendako gaia librea izanen da eta hiru mailatan banatuko dira partehartzaileak. 1.-2. mailakoek, guttienez orrialde bateko ipuina idatzi beharko dute, 3.-4. mailakoek orrialde terdiko eta 5.-6. mailakoek bi orrialdekoa.

Kartel lehiaketara-

ko berriz, «Zain dezagun ingurua» lema hartuko dute oinarritzat. 65x50 zentimetroko kartulina batean, mezu hori idatziz agertu beharko da eta edozein teknika erabil daiteke. Lan hau banaka nahiz taldeka egin daiteke, beti ere taldeak gehiezin hiru ikaslez osatuak badaude.

508 milioiko udal aurrekontua izanen da aurten

Udalak 508.782.000 pezetako aurrekontua izanen du aurten, iaz baino 130 milioi pezeta gehiago, azken udalbatzarrean, PNVren aldeko botuarekin, EAren abstentzioarekin eta HBren kontrakoarekin onartu zenez. Andra Mari erresidentziako Patronatoak berriz, 39.370.000 pezetakoa.

flash

Su-hiltzaile boluntarioa

izan nahi baduzu, apirilaren 12ra arteko epea izanen duzu izena emateko Herriko Etxeko bulegoan.

II. Lesaka Hiria Rallyesprint

auto laisterketa apirilaren 6an burutuko da, Eguzki elkarteak antolatuta. Herriko Etxeak 700.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuen, PNV eta EAren aldeko botuarekin. HB abstenitu zen.

Miguel Sanz

Nafarroako Gobernuko lehendakariak prentsan egindako adierazpenak direla eta EAK aurkeztutako mozioa ez zuen onartu udalbatzak, PNVk kontrako botua eman baitzuen. EAK «gure nortasunari eraso egiten dion politikaren zuzenketa» eskatzen zion Sanzeri. PNVren ustez, «prentsan agertutako adierazpenak prentsan erantzun behar dira».

Korrika arrakastatsua

Martxoaren 16ko gauerdia ez zen tenorerik egokiena laister egiteko baina, halere ehundaka lagun bildu ziren Korrika laguntzera. Izar eta Zizkuitz txarangek lagundu zuten atzerapena arinago egingen.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 627573 • LESKA

INXIO JANARIDENDA
Igardetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESKA

BEKO ERROA
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 63 78 26
LESKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Behoko Plaza 8, LESKA

ETXALAR

28 milioi gastatuko ditu Herriak baserrietako bideak moldatzen

Baserriek kostuaren % 20a ordainduko dute

PELLO APEZETXEA

Denetara 5.450 metro breaztatu edo zementoztatuko dira, oraindik inoiz egin ez direnak. Hara non eta zenbat xeheki: Lakain auzoan, Arantxipiko Borda aldeko bidean, 1.050 metro, 5.112.120 pezeta kostako dena. Larrapilen, Armitx aldean, 600 metro, 2.133.240 pezeta. Orizkin, Irigoieneko Borda aldera, 850 metro, 2.475.324 pezeta. Orizkin, Antsoneko Borda aldera, 1.500 metro, 5.046.000 pezeta. Zumeldi-Ozkaritz aldean, 1.000 metro, 5.324.400 pezeta. Larrapilen, Gorostipale eta Matxineneko Borda aldean, 450 metro, 2.740.500 pezeta. Badira moldatu gabeko bide gehiago, baina, denetarako sosik ez denez, guttienez bi baserri edo



Korrika-10

Martxoaren 14an Landagain Eskolako haurrek Euskararen KORRIKA ttikia burutu zuten, karrikako auzo guztiak barrena itzulia eginez. Arg.: Pello

gehiagorako diren bideak aukeratu ditu Udalbatzak oraingoan. **Zaharretxean obrak** Iruñetik sos gehiagoren esperoan alferrik

egon ondotik, urrezko berogailua paratu eta bertze gela pare bat moldatuko dira, bi ohatzkoa bat, eta ohatzetea bertzea.

Breaztatutako bideak konpondu

Lehendik moldatutako zeuden bideak hondatzen ari direnez, erabat desegin baino lehena-

go, konpontze eta zola-berritze lanetan 7 milioi gastatuko dira. Horien artean, Zugarramurdi aldeko zenbait zati.

Saihesbidea

Larraburutik Arroserako saihesbideari ere ailegatu zaio bere ordua. Hainbat alditan aipatu bada ere horren moldaketa, ez zen Gobernu eta Udalaren arteko adostasunik lortu, nolako moldaketa egin, alegia. Orain Udalerriak berak egingen du lana, 1.157.000 pezetan.

Bertzalde, Herriko Etxe zaharra zaharbertitzen hasiko dira. Hainbat gauzatarako tokia probexten ahal dela eta, konpontze eta egokitze lanak hasiko dira, hala-nola, pilareak sendotu eta segurtatu, eta teiltatu berritu. Aurtengo kontuetan 12 milioi sartuko dira.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

BEREAU
jaketxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - **LESAKA**

BEIRA
KRISTALDEGIA

Agerra auzoa
harategi parean
© 630557 • **BERA**
© 929.443765

- Kristal biselatuak
- Kristal dekoratuak
- Ispiluak
- Bidrierak
- Kristaldegia orokorrean

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea

SAGARDOTEGI MENU BEREZIA

Troizoa sagardo etara **Pertsonako 1950 Pta.**
Bakailu Tortila (2 pertsona guttienez)
Idi tuletta
Gasna, membrilloa, intraurrak
eta sagardoak nahi adina

© 635290
ETXALAR
ASTEARTETAN
ITXITA

Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

barnek s.l.

Sukalde mobleen fabrika

Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • **LESAKA** • Tel.: 637850, Fax: 637928

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264

IGANTZI

Inoiz egin zaion harrerarik hoberena Korrikari aurtengoan

1.600 landatu ditu udalak San Juanen



Aunitzetan pasatzen den bezala, denbora dexente inongo ekitaldirik gabe pasatu ondotik, denak aste hondar batean pilotzen zaizkigu. Halaxe gertatu zen martxoaren 15 eta 16an. Larunbatean, mus eta partxis lehiaketa jokatu ziren Biltokin. Musean Aniceto eta Emilio gelditu ziren txapeldun eta partxisean Rosa eta Gurutxe (ordezkoak bidali zituzten sariak hartzeraz). Afari eta ondoko besta guttitan ateratzen den horietakoa izan omen zen. Igandean, berriz, Korrikaren inguruan antolatutako besta guzia

Argazkia: Oskar

OSKAR TXOPEERENA

Ez digu hamu garren Korrikaren pasatzeak oroitzapen txarrak utziko. Zeinen ongi pasatu ahal izan zuten bazkalondotik hasita. Korrikaren inguruan antolatu-

tako ekitaldietan murgildu zirenak! Irakasleekin eskolan hainbertze egunez prestatutako kantak, bertsoak, etabar... kaleratu zituzten haurrek eta, egindako Korrika Ttikiarekin batera, arratsalde izugarri po-

litaz gozatu zuen jendeak. Gauza nabaria da haurren partehartzea gero eta haundiagoa dela zerbait antolatzen denean. 12,30etan pasatu zen berriz egiazko Korrika. Hiru kilometro zituzten erosiak

igantziarrek eta zenbait momentutan 40 edo 50 lagun ere kontaktu ahal izan genituen lekukoaren ondotik lasterka. Hagitz egun polita, dudarik gabe. Lerro gutti batzutan ez sartzeko modukoa.

Haurrak Txiki-Parken izan ziren

Gipuzkoa aldera izan ziren haurrak martxoaren 21ean. Olentzero eta Ortzegun Gizen egunean bildutako dirua banatu beharrean, bidaia egiteko erabiltzea erabaki zuten eta Txiki-Park eta Segurako baserri batetan dauden animaliak bisitatzen pasatu zuten eguna.

Eta eskolaz ari garen ez, Guraso elkarteak bi partaide aldatu behar omen ditu, eta horretarako apirilaren 8an eginen du bozketza.

Zuhaitz plantazioak

1.600 zuhaitz planta paratu ditu udaletxeak San Juan inguruan. Bizpahiru gaztek egin dute lana eta 1.200 harritz amerikar, 200 gerzizondo eta 200 eltzaurondo berri ditugu orain paraje horretan.

XATURETXEA
ZALAIN
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ALDO
LESAKA

koxkonta
Sagardotegia zabalik
Deitu enpresbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

ORBELA
gimnasioa
• Squash eta sauna
• Hidromasaje bainua
• Muskulazio-aretoa
• Masajea:
• Orokorra
• Kirol masaia
• Giharrak litzetzeko
• Bizkarreko mina
• Beso eta zangoak
• Errekupezioa
Antoiu 21 • © 637950 • LESAKA

KOXKILA
OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

ARANTZA



Korrika dela eta kultur ekitaldiak burutu ziren

Gazte Asanbladak, Ekaitza elkartearen laguntzaz antolatuak

ELIXABET ETA GARBINE

Martxoaren 8an, Korrikaren inguruko kultur ekitaldiak antolatu zituzten Gazte Asanbladak, Ekaitza elkartearen laguntzarekin. Arratsaldeko 6etan, bide berriak hasita herri guztian barna Korrika Txikia egin zen. Denetara, gutti goiti beheiti ehun bat

pertsona animatu ziren euskararen alde laister egitera. Gaueko 9etan Ekaitza elkartearen afariari hasiera eman zitzaion. Bertan, uste baino lagun gehiago bildu ziren afaltzera, 60 inguru. Afalondoren, kafe antzerkia izan zen, Xebe Diez eta Teresarekin. Antzieslana bukatuta-koan, elkarteeko terra-



Ofiziala herritik pasatzen ez bazen ere, aunitz izan ziren Korrika egin zutenak Begoña Lizardi

zan *Xuia* reggae taldea eta *Alaitz eta Mainer* trikitilariak aritu ziren.

Aipatu behar da, egun honetan Emakumeen Eguna ere ospatzen zela, eta egun hau goraiatzeko eta zertarako ospatzen den erakusteko, panelak jarri

ziren Ekaitza elkarteeko terrazan.

Bertzalde, nahiz eta Korrika ofizialaren ibilbidea herritik ez pasatu, herriko lau taldek kilometro bana erosi zuten: Ekaitza elkarteak, eskolak, Gazte Asanbladak eta Herriko Etxeak.

Kadeteak bigarren herri kirol txapelketan

Aurreko TTIPI-TTAPAN aipatu genuen kadete mailako herri kirol taldeak Irurtzunen Nafarroako txapelketaren finala jokatu behar zuela. Nahiz eta ez duten txapela eskuratu, bigarren postua lortu zuten.

Greba orokorra

Martxoaren 7an, HBko Mahai Nazionalaren gartzelaratzeko salatze burutu zen Greba Orokorraren ondorioz, herriko hainbat denda eta ostatu itxita egon ziren. Halere, bakarren batzuk zabalik gelditu ziren.

Suteak Aientsa eta Artikutza aldean

Aspaldian ez genuen sutarik izan, baina badirudi lehen aldi honetan suteak indartzen ari direla. Baina dela bi aste Aientsa auzoan izan zen eta azken aste honetan, aldi hartu du. Artikutzako mendietan, Herriko jendea behera da, aziendak bertan maitutze.

ANTZUZELAK S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinak	Tximiniak
Angelak	Erlatzak
Ornu antzinak	Moldurak
Leibak	Zokaloak
Ateak	Biharriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

"Abagankoa" Muzoa
Zuhar antzokoa Tuzpoitia

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGEA
JATETXEA**

ATERPE
ALBERGEA

© 634179
ARANTZA

SAROBIE

okindegia

SANDERS Pentseak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Aranguren

Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
Inkubularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 637503 • LESAKA

Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala apirilaren 13an burutuko da frontoian

Aitzinetik mahaingurua eta bazkaria izanen dira

JOSUNE ETA ISABEL

Apirilaren 13an, igandea, Sunbillan hirugarren aldiz Nafarroako bertsolari txapelketaren saio bat ikusi eta aditzeko aukera izanen dugu. Eta ez nolana hiko saioa, gainera, jokoa dauden hiru kanporaketa eta finalerdien ondoren, final nagusia izanen baita frontoian.

Saioa baino lehen, solasaldi edo mahainguru bat izanen da bertsolari batekin. Antzakaitez kultur taldekoei eman zaie hau antolatzeko aukera eta beraiek erabaki beharko dute zein bertsolari nahi duten. Saioa egunean berri, goizean herriko trikitilarietrik ititixa joko dute herrian barna. Ondoren, Ulibeltza elkarrean bazkaria izanen da 90 pertsonendako, finalean arituko diren ber-



Nafarroako bertsolariak frontoiko taula gainean ikusi ahal izanen dira apirilaren 13ko finalean

Artxiboa

tsolariak ere bertan izanen direlarik. Bazkalondotikan, bertsolari txapelketaren finala hasiko da frontoian.

Korrika pasatu zen

Korrikaren hamargarren edizioa martxo-

aren 16ko gauean pasatu zen Sunbillatik. Gasolineran hartu zuen alkateak Doneztebetik heldu zen Korrikaren lekukoa. Berekin batera herriko hainbat jende zegoen esperoan. Uste baino beranduago aile-

gatu zen, arratseko 11tan. Ittongo joaldunak ere bertan zeuden. Herriak gasolineratik Itturko ondorainoko kilometroa egin zuen eta handik Soilaraino, mai-xu-maistrek eraman zuten.

Legasako Xanpale taldeak irabazi zuen futbitoko txapela

Finalean Basaburua taldeari 5-4 irabazi ondoren, Legasako Xanpale taldeak eskuratu du Baztan-Malerrekako futbito txapelketako lehen postua. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko norgehiagokan, Doneztebeko Bar Titi nagusitu zitzaion Sunbillako Ulibeltzak taldeari.

Gainerako sariei dagokienez, Bar Titik eskuratu zuen kiroltasunari emandako saria, Xanpaleko Pedro Miguel Castilla izan zen gol guttien jaso zuen atezaina eta Titiko Felipe Ganboa goleatzaile onena. Erregulartasunaren saria Xanpaleko Asier Hermandorenak jaso zuen.

Hamabi taldek parte hartu dute aurtengoan.

ALDABE TAXIA
DONEZTEBE
☎ 450687

Elizatz
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 OIARTZUN

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN

MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaleetatik edozein herritarra trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ARIN ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Hurrengo hiru urteetan obrak egiteko 172 milioi izanen ditu herriak

Nafarroako Gobernuko Hirurteko Azpiegitura Planaren arabera

TXEMA ALDABE

Nafarroako Gobernuak 172.293.000 pezetako inbertsioa egingen du Doneztebeko azpiegitura lanetan, Hirurteko Planaren barnean. Honetaz gain, tentsio baxuko sarea berritze-ko lanak, 13.241.000 pezetako inbertsioarekin, erreserban gelditu dira.

Erabat onartutako lanak herriguneko ur-hornidura eta saneamendua (46.371.000 pezetako inbertsioa aurten), tentsio baxuko sarearen berritzea (20 milioi datorren urtean), herriguneko argiteria berritzea (21.616.000 pezeta datorren urtean) eta zola-berritzea (84.306.000 pezeta aurten) dira. Eraberean, lanok egingen direla probetuz, gasa sartzea ere pentsatu da, alkateak adierazi duenez.

Doneztebeko udalak 268 milioi terdiko inbertsioak eskatuak zituen eta emaitza positiboa izan dela erran du alkateak.



Arria V.ak onartu du Luis Mari Belarraren desafioa

Doneztebeko Belarra kafetegian itxitako apostuan, Xabier Orbegozo 'Arria V.ak', Luis Mari Belarrak luzatutako desafioari erantzun dio. Apostua maiatzaren 4ean, eguerdiko 12,30etan jokatu-ko da Donezteben. Onartutako apostuaren arabera, Belarrak 11 kanaerdiko moztu beharko ditu eta Arriak 12 kanaerdiko. Egurrak erdibana plaza-ratuko dituzte eta doneztebarrak nahi duena utziko du moztu gabe gipuzkoarraren lotetik. Aizkolarari bakoitzak 400.000 pezeta jokatu-ko ditu.

Erreka mendi taldea Goizuetara apirilaren 6an

Goizeko 7ak aldera aterako dira eta Mendi-eder, Ekaitza eta Loitzate egin ondoren, eguerdi aldera, iritsiko dira Goizuetara. Bertan ederki bazkalduko dute eta autoz itzuli. Joan nahi duenak apirilaren 2a, asteazkena, du azken eguna Titi tabernan izena emateko.

Kafe-antzerkia

Xebe Diez eta Teresa Lopez de Muniain jubilatuen ostatuan izan ziren martxoaren 26an, asteazkenean, gaueko 10,30etan «Urrundik eta elkarrekin» kafe-antzerki saioa eskeintzeko. Bi antzesleak aski ezagunak dira, batek ETBn eguraldiaren berri ematen baitzuen eta bertzeak Goenkalen Ginaren papera egiten zuelako. Malerrekako euskaltegia da ekitaldiaren antolatzailea. Ikasleek afaria izan zuten gau berean.

Piriniotako Lan Komunitatea Bertzen bilduko da apirilaren

Piriniotako Lan Komunitatearen hamabosgarren batzarrea apirilaren 24 eta 25ean bilduko da Bertziko Partzuegoan eta Lekaroz, Elizondo eta Almandozen.

Apirilaren 24an, elkarre hiru osatzen duten zazpi komunitate-tako lehendakariak bilduko dira: Jacques Valade (Akitania), Marc Censi (Midi Pyrenées), Jacques Blanc (Languedoc-Rousillon), Josep Duró konsultula (Andorra), Jordi Pujol (Katalunia), Jose Antonio Ardanza (Euskadi) eta Miguel Sanz (Nafarroa).

Apirilaren 25eko goizean Lekarozko institutuan bilduko da kontseiluko 300 batzarkideak, arestian aipatutako zazpi komunitateak ordezkatzuz.

Lan-sesioetaz gain, Elizondoko Baztan hotelean afaria eta Almandozko Beolan bazkaria izanen dute.

Elkarte hau 1983an sortu zen, Pirinio inguruko komunitateen lanak koordinatzeko.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karriko • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

MALERREKA

Zubietako errotan Uraren Ekomuseoa egiteko 15 milioiko laguntza Europatik

Lehenik, ordea, errotaren jabetza edo erabilera udalaren esku egon beharko luke

TTIPI-TTAPA

Zubietako errotan moldaketak egin eta bertan Uraren Ekomuseoa zabaltzeko 15 milioiko dirulaguntza jasoko du Zubietako Herriko Etxeak Europatik, Enpresa eta Berrikuntza Zentruaren bidez. Horretarako, ordea, errotaren jabetza edo erabilpen eskubidea udalaren esku egon beharko luke eta momentu honetan, 40 lagunetik goiti biltzen dituen elkarte bat da errota gestionatzen duena.

Herriko Etxea eta elkarteak ordezkariak Eguberrietan bildu ziren eta azken hauen artean gehienak errota udalari ematearen aldekoak baziren ere, ez zen



Errotaren funtzionamendua erakutsiko litzateke Uraren Ekomuseoan Artxiboa

deus idatzirik gelditu. Horregatik, laister bigarren bilera baterako deialdia egingen dela adierazi dute Zubietako Herriko Etxetik, bertzenaz ez baitago deus egiterik.

Europako elkarteak lanpostu berriak sortzeko programa baten barnean ematen du dirulaguntza, izan ere, langile bat beharko litzateke errotan. Dirulaguntza jaso ahal izateko, lanak 1998ko maiatza baino lehen akitu beharko lirateke. Errotaren zesioa lortuz gero, Herriko Etxeak proiektua idaztea enkargatuko luke segidan eta lanen kontratazioa egingen litzateke. Gero, Nafarroako Museo Sarean sartzeko aukera izanen luke.

Hirurteko Planean zenbait lanetarako laguntza eman da

Nafarroako Gobernuak zenbait inbertsio egingen ditu Malerrekan, 1997-99 Hirurteko Plangintzan, mankomunitadetik eta herrietatik egindako zenbait eskariri erantzuna emanez.

Mankomunitadeak 70 milioi jasoko ditu uraren tratamendu planta egiteko. Zaborontziak erosteko berriz 11 milioi terdi eskuratuko ditu.

Donamariak o udalak 12.093.000 pezeta jasoko ditu 1999. urtean, Iguirin auzoko ur-hornidura eta saneamendu lanei ekiteko.

Urrozko udalak hainbat lan egingen ahal ditu. 13.253.000 pezeta jasoko ditu aurtengo Utxala eta Balentxenea inguruetan eta baserrietan elektrifikazioa egiteko eta bertze 5 milioi datorren urtean argiteria berritzeko eta zabaltzeko. Herriko Etxea moldatzeko aukera ere izanen dute, 5.803.000 pezetako inbertsioa jasoko baitute 1999. urtean.

Iturengo udalak, berriz, 2.930.000 pezeta jasoko ditu datorren urtean, elektrizitate transformazio zentruetan zenbait moldaketa egiteko.

Azken alean aipatu genuen bezala, bi-deak moldatzeko laguntzak ere izanen dira.

Ezkurrako Fernando Etxeberria da UNEDeko idazkari berria

Hezkuntza Teoria eta Filosofia ikasgaiak ematen ditu Bergaran

TTIPI-TTAPA

Ezkurran jaio eta bertan bizidun Fernando Etxeberria Mari-ezkurrena Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitateko (UNED) idazkari izendatu dute, hainbat urtetako lanaren ondorioz. Aurretik Bergarako San Jose Obreiro Ikastetxe Teknikoko eta Aranzadi ikastolako zuzendaria izan zen.

Ezkurrako irakasleak beste lanpostu berezi batzuk bete ditu. Adibidez, Eskoriatzako Irakasle Eskola eta Gasteizko IVEFeko idazkaria. Orain dela hamabost urte Eusko Jaurlari-

tzak, Irakasle Eskolak eta Bergarako UNEDek euskarazko irakasleentzat Majisteritza ikasketak antolatu zituen zortzi urtez eta Fernando Etxeberria izan zen arduraduna. Geroxeago Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulaturiko presoen zuzendaria plangintza sei urtetan zehar koordinatu zuen. Azkenik, kontsumoan eta gerontologia psikosozialaren Masterren zuzendari lanak burutu zituen lau urtetan.

Gaur egun, Bergarako UNEDeko irakaslea da eta, beste batzuen artean, Hezkuntza Teoria eta Filosofia ikasgaiak ematen ditu.



Fernando Etxeberria, UNEDeko idazkaria

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-tpapa

Batzorde Erabakikorak 97ko plangintza eta aurrekontua onartu ditu

• PLANGINTZA

- **Administrazioa** 446.000 pta
 - Udal langileen euskalduntze-alfabetatze ikastaroak antolatu (1996-97)
- **Irakaskuntza** 25.000 pta
 - Matrikulazio kanpaina: D ereduaren aldeko kanpaina egin, gurasoei zuzendua (apirilean).
 - Familia giroan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina: euskararen transmisioa eta gurasoen euskalduntze-alfabetatzea bultzatu (irailean).
- **Kultura** 1.500.000 pta
 - Herrietako kultur ekitaldiak antolatu (udazkenean)
 - Oskorriren kontzertua antolatu, Korrika Kulturaren barrenean (martxoan)
- **Merkataritza** 660.000 pta
 - Joan den urtean martxan jarritako egitasmoari jarripena eman, berriz establezimendu komertzial guziak bisitatuz (urrian)
- **Aisialdia** 905.000 pta
 - Gazteen artean euskara bultzatzeko egitasmoa martxan jarri, Erausian Gazteen Euskara Taldearekin batera (martxoan hasi)
 - Euskarazko bideoteka zerbitzua martxan jarri.
- **Bertzelakoak** 215.000 pta
 - Eskuaratean duzuen gehigarria argitaratu (urtean hiru ale)
 - "Euskaratu zure izen-abizenak" kanpaina (irailean)
 - Euskararen kale neurketa egin (irailean)
 - "Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara" turistei zuzendutako argitalpenaren banaketa eta segimendua egin (Aste Santuan eta udan).

• DIRULAGUNTZAK

Bortzirietako Euskaltegia	4.843.800 pta
Tipi-tpapa aldizkaria	3.589.040 pta
Xorroxin Irratia	600.000 pta
Bortzirietako Bertso Eskola	600.000 pta
Merkataritza: errotuloak euskaratzeko	330.000 pta
Nafarroa Oinez	110.000 pta
Herri Urrats	110.000 pta
Bekak	75.000 pta
Guraso langabetuen euskara ikastaroak	65.000 pta
Korrika	20.000 pta
Euskal Herrian Euskaraz	20.000 pta
Euskal Kulturaren Batzarra	20.000 pta
Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkart.	20.000 pta
Guztira	10.402.480 pta

• AURREKONTUA


Ateerak	
Funtzionamendu gastuak	5.232.613 pta
Plangintza	3.751.000 pta
Dirulaguntzak	10.402.840 pta
Guztira	19.386.453 pta
Sarrerak	
Udalen ekarpena	13.358.468 pta
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	4.061.290 pta
Bertzelako diru-sarrerak	913.000 pta
Guztira	18.332.758 pta
97ko defizita	1.053.695 pta
96ko superabita	3.734.130 pta

Berriak

Barañaingo udalak 1994. urtean hainbat lanpostutarako deialdia egin zuen eta horietako batzuetan (D ereduko Haurtzaindegi eta Eskola Publikorako, errate baterako) euskara jakitea derrigorrezkoa zen. UGT sindikatuak deialdi hauek errekurritu zituen. baina Barañaingo udalak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena ikusirik, aintzineratu segitzea erabaki zuen. Orain dela bi aste, prentsan agertu zen bezala, Ignacio Merino epaileak elegite honen sententzia eman zuen, lanpostu hauetarako deialdian erdaldunak diskriminatu zirela argudiatuz. Gai honek polemika sortu duenez, Andoni Esparza, Lesakako udaleko idazkariari bere iritzia eskatu diogu.

Andoni ESPARZA LEIBAR
Lesakako Udaleko idazkaria

Euskararen kontrako sententzia



Barañaingo Udala, Euskerari buruzko 18/1986 Foru Legeak ezarritako zonalde mistoan dago. Eremu hortako hiritar guzkiek, Administrazio Publikoei zuzentzeko, euskera erabiltzeko eskubidea dutela esaten du arau horren 17. artikulua, hau gaineratuz: «Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatutako Administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskeintza publikoan, euskara jakitea zein lanpostutarako

izan den nahitaezkoa zehaztu.

b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdian euskeraren ezagupena merezimenduztat baloratu».

Beraz, eremu mistoko herri administrazioek, hiru aukera dituzte pertsonal berria hartzeko unean: euskera eskatzea, baloratzea bakarrik, edo kontuan ez izatea.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratiboaren Salak, otsailaren 20ko epaian, ez du ezta

Euskeraren Legea aipatzen. Sententzia oinarritzen den arau bakarra Konstituzioaren 14. artikulua da, eta honek esaten duena hau da: jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi eta horrelako ezaugarriengatik ezin dela diskriminaziorik egin. Bainan horrek ez du zerikusirik euskeraren eskaerarekin. Hau, lanpostu horretarako behar den baldintza bat besterik ez da, titulazio-koa bezalakoa, adibidez. Hortaz, Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudenzia oso garbia da eta beste Komunitate Autonomoetan ez dituzte halako arazorik izan. Kataluniako Generalitateak, esate baterako, hartzen duen enplegatu guztiei hango bi hizkuntz ofizialen ezagueratu eskatzen die.

Uste dut halako epaiak ez direla gainontzeko Komunitate Autonomoetan ematen eta arrazoi nahiko garbia da: bere gobernu eta Administrazioek, kontu handia izaten dute hizkuntza propioari buruz dagoen legedia errespetarazten. Horregatik, auzitegiek ere, araudia ongi ezagutzen dute.

Orain arte, Nafarroako Gobernuak ez du interes gehiegi izan arlo honetan. Gure hizkuntza babesteko arauak onartu badira, jendearen presioarengatik izan da. Hala ere, gauzak pixkanaka-pixkanaka aldatzen ari dira. Espero dezagun hemendik aurrera Foru Administrazioak sutsuago defenditzea euskera. Horrela ez dira errepikatuko epai sinistezin hauek.

Berriak

Aitzinera goazi

Gibelera goazi

Laburrak



Euskara teknikariaren lanposturako deialdia

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak urtarrilaren 31n egindako bileran euskara teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia onartu zuen. Izan ere, orain dagoen teknikariari kontratua apiritik aurreratu behar da. Oraingoan Mankomunidadeak lanpostu finkorako deialdia egitea erabaki du. Lanpostu honetarako aurkezteko beharrezkoak izan da interesatuak erdi mailako titulazioa eta EGA izatea. Azterketak maiatzan egingen dira eta izen emateko epea bukatua dago.

Iazko urrian egindako merkataritza kanpainaren ondorioz, Bortzirietako jatetxe hauetan menua eta karta euskaraz irakurtzeko aukera dugu: Zalain

(Bera), Koxkonta, Kattu eta Bereau (Lesaka), Burlada eta Aterpe (Arantza) eta Harizpe (Etxalar). Jendeak jakin dezan, honelako pegatina dute beren atean.

Aspaldiko urteetan euskara ofiziala da gure herrietan. Halere, Nafarroako Gobernuari maiz ahazten zaio hori eta oraindik ere bide-

tako errotulo aunitz erdara hutsez edo euskaraz gaizki idatziak daudela ikusten dugu. Argazkian adibide bat dugu, Beran bertan aurkitu duguna.

Herriko Plaza

Badirudi Bortzirietako ikastetxeetan euskarazko irakaskuntzaren egoera gero eta hobea dela. Halere, honek aunitzetan gure artean gezurrezko optimismo bat sortzen du, ez baikara bertze hutsune batzuetaz konturatzen. Erraterako:

- Neska-mutikoak eskoletan euskaraz ikasten ari dira baina hortik kanpoko jarduera gehienak erdaraz dituzte, hau da, solfeoa, musika-instrumentuak, futbola, ingelesa...

- Gaur egun unibertsitateak (bai pribatu eta bai publikoak) euskaraz ikasteko ematen dituen aukerak hagitxikiak dira. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Magisteritzako adar bat bertzerik ez dago euskaraz.

Patri ARBURUA

Bortzirietako Euskara Teknikaria

Irakaskuntzaren egoera

Bortzirietan: 96-97 ikasturtea

%	A	B	D	Ikasleak
Haur Hezkuntza	-	15.8	84.1	158
Lehen Hezkuntza	406	15.7	79.6	408
DBH	34.5	3.9	61.5	278
Irakaskunta Ertaina	51.9	-	48.1	206
Guztira	21.1	9.5	69.3	1.050

- Taula honetan Bortzirietako ikastetxe guztiak kontuan hartu ditugu. Beraz, 3-18 urte bitartean, guztira 1.050 ikasle daude.
- Azkeneko bost urteotan ez da haurrik matrikulatu A erduan (erdaraz).
- Azken hiru urteotan hauxe izan da ikastereduen prozesua:

%	A	B	D
94-94	30.7	6.3	62.8
95-96	23.9	7.6	68.4
96-97	21.1	9.5	69.3

Euskarazko bideoteka zerbitzua

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak euskarazko bideoteka zerbitzua martxoan jarriko du. Horretarako, azken urteotan Eusko Jaurlaritzak argitaratu dituen euskarazko hainbat bideo erosiko ditu, horretarako 50.000 pezetako partida sartzea erabaki baitu. Herritarrek bideo hauek mailegu moduan hartu ahal izanzen dituzte Bera eta Lesakako liburutegietan. Hurrengo batean, euskarazko bideo hauen zerrendaren berri ematen dizuegu.

«Euskara merkataritzara» kanpainaren emaitzak

Denok dakigunez, iazko urrian "Euskara Merkataritzara" deitutako kanpaina martxan jarri genuen eta Bortziritako ia 200 establezimendu komertzial bisitu genituen, eskaintza hauek luzatuz:

- Nahi dituzten dokumentuak, kartelak, ordutegiak... euskarara itzultzeko aukera.

- Euskara ikastaroetan parte hartzeko aukera, berriak aukeraturako ordutegietan.

Dagoeneko kanpaina honen emaitza batzuk ematen ahal ditugu: 193 establezimendu komertzialek sinatu zuten Bortziritako Merkataritzan Euskararen Erabilera Sustatzeko hitzarmena eta maila ezberdineko konpromezuak hartu zituzten. Hona hemen establezimendu zerrenda:

ARANTZA:

- Pabloenea, Primitibo, Burlada eta Aterpe ostatu-jatetxeak.

- Martipetxenea harategiak eta Osiña janaridendak.

- Botikak.

- Pili-Marce ileapaindegiak.

BERA:

- Zizka, Maritorea, Fidel, Matxiarena, Xanti, Errekalde, Matxako, Miljar, Eguzki, Ekaitza, Bidaxka,

Zalain, Botxo eta Malet ostatuak eta jatetxeak.

- Erosle, Nafarroa, Oroz, Telletxea, Agara, Aranibar, Errotazar, Nati, Iantzi, Pagola, Okane, Ahorroberri, Rozas eta Begoña janaridendak eta harategiak; Jaione gozotegia eta Labezar eta Sarobe okindegiak.

- Zela-kirolak, Sucesores de A. Iglesias, Agara Sport, Edurne, Oihana, Kloxka eta Erratz arropadendak.

- Goya, Alzuri, menagedendak eta ferreteriak; Gurria, Romano eta Molinero drogeriak; Dirdir eta Centro Cien opari dendak; Prieto estankoa.

- Goiko eta Ayla argazki-dendak; Ostargi optika; Etxegarai bideo-kluba; Top Clash English akademia; Semper Autoeskola.

- Yoan, Geno eta Izana ileapaindegiak.

- Peugeot-Talbot eta Renault kontzesionarioak; Burundesa-Bidasotarra autotusak.

- Radio Bidasoa, Bortziri, Maritx eta Jaurena elektrogailuak; Gare saneamenduak; Blanco marmolak.

- Mapfre eta Wintherthur asegurueteak; Asine aholkularitza.

ETXALAR:

- Harizpe jatetxea eta Herriko Ostaua.

- Isabel Genua, Landaburua eta Juan Martin janaridendak; Etxalarko okindegia; Marikruz ileapaindegia.

- Botika

IGANTZI:

- La Villa eta Igantzi ostatu-jatetxeak.

- Bi-bide, Maria Jesus Taberna eta Allinea ostatu-janaridendak; Pascual Iguzkiagirre harategi-janaridendak.

- Botika.

LESACA:

- Arrano, Ziobi, Telebote, Kattu, Zialdo, Xaruta, Saski-berri, Haizegoa, Batzoki, Atxaspi, Saski, Xaturtxea, Iru-bide, Olaberri, Aialde, Koxkonta, Ekaitza, Etxeberria, Txominea, Koxkila, Bereau eta frontoiko eta igerilekuetako ostatu eta jatetxeak.

- Legarra paper denda; Maritxalar arropadenda; Etxarte erlojudenda; Txirula loradenda; Deñe mertzeria; ZZ zapatadenda.

- Fagoaga, Mindegia harategiak; Mikelajauregi, Maite arraindegiak; Labeakoak gozotegia eta Roar bideo-goxokiak; Rekondo okindegia; Telletxea estankoa; Marian lurrindenda.

- Igarzabal, Ametsa, Antxordoki ahizpak, Beti, Mari Luz eta Kixkur ileapaindegiak.

- Maixus, Alzuri eta Bi-

tiria elektrogailuak; Esther ateak.

- Lesaka autoeskola; Maldaerreka bidai-agentzia; Artekari aholkularitza; Top Clash English akademia; Txepetxa albaitaritza; botika; Orbela gimnasioa.

Errotuloak euskaratzeagatik dirulaguntzak merkatariei

Bortziritako Euskara Mankomunidadeak errotuloak euskaratzeagatik dirulaguntzak eskainiko dizkie merkatariei. Iazko kanpainan bere errotuloak euskaratzeko prest agertu ziren establezimendu komertzialak 11 izan ziren. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak hauek izanen dira:

- Mankomunidadeak errotuloaren gastuaren %50 ordainduko die, beti ere 30.000 pezetako mugapean.

- Dirulaguntzak errotuloak euskara hutsez jartzeagatik emanen dira.

- Interesatuek Bortziritako Euskara Mankomunidadeari eskaera luzatu behar dio, errotuloari dagokion gastuaren faktura aurkeztuko dio. Mankomunidadea errotuloa euskaratzeko interesaz azaldu zutenekin laster jarriko da harremanetan.

AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu

 **634125**

MALERREKA



Erregerena torturatu zuten poliziak epaitu eta zigortuak

Enrike Erregerena ittundarrak salatutakoen kontrako epaiketa egin zen azkenean, ia 15 urte pasa ondoren. Orduan atxilotu zuten eta tortura gogorak salatu ondoren, otsailean torturatzaileen kontrako epaiketa egin zen, Madriler a lfer-bidai ugari egin ondotik. Erabakiaren ondorioz lau polizi kartzeleratu dituzte eta 4 milioi pezetako indemnitzazioa ordaindu beharko dute. Erabaki hau errekurritu egin dute poliziek.

Emakumeen afaria ospatu zen Zubietan

Festa herrian bertan egiteko aukera polita

AINHOA MUTUBERRIA

Atso afaria aurten ere arrakastatsua izan da. Agian, inoiz baino jende gutxiago apuntatu zen, bainan halere, gu-rean segitzen dugu. Beste alditan ez bezala, ostatuko jantokian afaldu eta bertan dantzan ibili

ginen musika akitu arte (lauak edo izanen ziren). Gero parrandak aurrera egin zuen, tabernariak aspertu arte.

Beti zoragarria da herrian bertan jai izatea. Ez duzu kotxea hartu beharrik, nahi duzun besteko juerga egin dezakezu eta deskuidu ba-

tean aspertzen baldin bazara, etxera erretiratu besterik ez daukazu.

Bestalde, azken egunotan polemika sortu da herrian: nor den joalduna eta nor ez, kultura aldatu ala ez, irainak eta ez dakit zer gehiago. Ea egoera pixkat bazaretu eta konpontzen den.



Alduntxine saldiastarra istripuan hila

Martxoaren 14ko gertaera latz honek berriro ere saldistarren bihotzak erabat samindu zituen. Fustiñanatik zetorrela, Valtierra ondoan hil zen auto istripuz, bidegurutze batean kamioi bat jo ondoren. Jose M^a Mikelarena, Alduntzinea base-rrikoa zen eta Saldiasko udaleko zinegotzia. Elizan egindako hileta-elizkizunetan hainbat herritar, lagun eta ezagun agertu ziren, azken agurra ematera eta beraien nahigabea erakustera.

Beintza-Labaiengo botika zabaldu zen

Iruñeko Olga Alzate Basterretxea da botikaria

PATXI OTXANDORENA

Martxoaren 5ean zabaldu zen ofizialki Beintza-Labaiengo botika berria. Ekitaldian herriko jendea eta udal

agintariek in batera, Nafarroako Gobernuo ordezkariak, Osasun sailekoak eta Saldias eta Urrozko agintariak izan ziren. Botikaria Iruñeko Olga Alzate Basterre-

txea izanen da eta ordu-tegia berriz, astegunetan goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara eta larunbatetan goizeko 10etatik 1etara. Botikako telefonoa 451875 da.

BERTIZARANA

Udal artxibategia antolatzeke dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Eskaintzak aztertzen ari da Herriko Etxea

TTIPI-TTAPA

663.868 pezetako dirulaguntza jasoko du Bertizaranako udalak Nafarroako Gobernuo Hezkuntza eta Kultura sailetik, udal artxibategia moldatu, antolatu eta katalogatzeko. Momentu honetan Bertizaranako Herriko Etxea gisa honetako lanak egin dituzten hi-


ru enpresekin negozioak egiten ari da eta eskaintza guzrien artean egokiena aukeratuko du ondoren. Herriko Etxetik adierazi digutenaren arabera, ora indik ez dago jakiterik lanak noiz hasiko diren.

Narbarte eta Legasako urak

Nafarroako Gobernuak 60 milioi pezeta-

ko inbertsioa egingen du Narbarte eta Legasan, uraren hartzea, bideratzea eta tratamendua egiteko. Dirulaguntza hau Hirurteko Azpiegitura Plangintzaren barenan egingen du Nafarroako Gobernuak eta diru guzdia datorren urtean emanen dute.

Narbarte eta Legasan urarekin egin beharreko lanak lagunduko dira



GOIZUETA

Basoen esplotaziorako pistak erabiltzeagatik tasa kobratuko da

Bildutako dirua pistak konpontzeko erabiliko omen du udalak

ESTEBAN AROZENA

«Bide publikoko eta herri lurretako zoru, hegaladura eta zorupeko aprobetxamendu berezien» prezioak arautzen dituen ordenantzak onartu berriak dira Herriko Etxean.

Klase askotako tasen berri ematen da ordenantza hauetan, (esate baterako, plazan gauzak saltzeko postuak jaritzeagatik udalak kobratuko duena) baina, herriko egoera ekonomikoa kontuan hartuz gero, basoen esplotaziorako mendietako bideak edo pistak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa izanen da garrantzitsuena, seguraski.

Partikularren arbolak garraiatuz ondutako pistak konpontzeko, orain arte egiten den



Iskibiko kanpina inauguratu zuten

Nafarroako Industria eta Turismoko Zuzendari Nagusiaren presentziarekin eta apezaren bedekazioarekin inauguratu zen ofizialki martxoaren 8an Iskibiko kanpina. Aitasemegi eraikuntza enpresaren instalakuntza honek 232 plazako kapazitatea du oraingoz. Taberna-jatetxea, bi piztina eta ura eta argindarraz hornitutako partzelak eskeintzen dizkie bere bezeroei.

bezala, herritar guzien dirua erabiltzea ez omen du begi onez ikusten udalak. Horregatik, pi-

nuak edo beste edozein zuhaitz mota menditik atera nahi duenak, metro kubikoko 125 peze-

tako tasa ordaindu behar du. Mendien ardura daraman Laxaro Apezetxeak esan zigu-

Alkate intsumituek ez zuten deklaratu

Udal Intsumituei Iruñan ireki dizkien dilijentzi judizialak diru-erela-eta, hil honen 18rako deitu zituzten epaitegira Nafarroako zazpi alkate, hauen artean Goizuetakoa. Espainiako ezejzitoei ez kolaboratzea da leporatzen dieten delitua, baina ez diote kasurik egin epaileari, bat bakarrik ere ez baitzen agertu bere aurrera egun horretan. Baton-bati azalpenak ematez gero herritarrei emanen omen dizkiete alkateek, «hauek baitira honelako jarrera mantentzea eskatzen digutenak». Beraz, aurrera ere ez omen du inongo epailearengana agertzeko asmorik.

nez, era honetara biltzen den diru guztia pistak konpontzeko erabiliko omen da.

ARESO

Zuhaitzak landatu zituzten eskolako umee

Ingurugiro proiektuaren barnean

JUANA M^a SAIZAR

Ingurugiroari buruzko proiektuari jarraituz, eskolako umeek mendizainaren laguntzarekin hiru zuhaitz hazi mota (urkia, lizarra eta pagoa) landatu dituzte,

udalak eskolari utzi zion lur eremuan, errekaen bestaldean.

Emakumeen Eguna ospatu zen

Emakumeen Eguna ospatu zen urtero bezala. Emakume mordox-



Elizdorreak moldaketak behar ditu

ka bildu zen eta afaldu ondoren musika ere izan omen zuten. Menopau-

siari buruzko hitzaldia antolatua zegoen egun horretarako, baina ara-

zo batzuegatik ezin izan zen burutu. Beste egun baterako atzeratu dute eta denborarekin abisatuko da.

Moldaketak elizdorreak

Elizako dorreari, aspaldidanik harri batzuk erori zitzaizkion eta egoera arriskutsuan dago momentu honetan. Tximistortzatza konpontzerakoan konturatu ziren zein egoera txarrean zeuden dorrea eta ondoko balkoia. Konponketaren aurrekontua 800.000 pezetakoa da. Orain diru hori nola lor-tu pentsatu behar da.

Leitzaldeko Zahar-Etxea herrian jartzeko proiektua prestatzen ari da Udala

250 milioitik gorako aurrekontua izanen luke

JOSEBA AZPIROZ

Zonalde honetako beharrak beteko dituen Zahar Etxearen kokaguneak herrien arteko lehia sortu du. Lau udal-ekin nahi dute etxea: Lekunberrik, Beteluk, Larraunek (Mugiron) eta Leitzak. Bakoitzak berea defendatzen du eta herri bakoitzeko abantailak azaldu: balnearioa irekitzeko aukera, eguraldi epelagoa, komunikazioak, populazioa...

Oraindik Leitzan proiektu zehatzik ez bada onartu ere (hau idazterakoan), memoria bat egin da. Honen arabera, 52 lagunentzat tokia izanen lukeen hiru pisutako etxea eginen litzateke (2.318 m²). Etxea eraikitzeko aurrekontua 250 milioitik gorakoa da. Hauetatik 100 milioi Nafarroako Gobernuak jarriko litzuzke, Parrokiak 8, Leitzako Udalak 27'4, gainerantzeko Udalak 15 eta 100 milioiko kreditu hartu beharko litzateke. Urteroko mantenimenduko aurrekontua be-



Haurtzainegian izen emateko epea zabalik

Haurtzainegian haurren izena emateko epea apirilaren 1ean ireki eta maiatzaren 30ean bukatzen da. Izena haurtzainegian eman behar da eta datu hauek ere eman behar dira: haurraren izena eta jaioterria, gurasoen izenak eta hileroko kuota kobratzeko banku edo aurrezki kutxaren kontu zenbakia. Datorren urteko hilebete baina lehen 3 urte betetzen dituzten haurrek ezin izanen dute haurtzaindegira joan eta irailan hasi behar dutenek 18 hilabete beteak behar dituztela eta gazteago direnak hilebetez hasiko dira, baldin eta 18 hilabete badituzte. Hileroko kuota 4.000 pezetakoa izanen da.

rriz, 59-60 milioikoa da. Zerbitzuengatik ordaindu beharreko kuota, hauek izanen lirateke: Bere buruaz baliatzeko laguntzarik behar ez dutenak 80.000 pezeta hileroko; zenbait gauzetarako laguntza

behar dutenak (erdi-balidoak) 120.000 pezeta hilean eta laguntza erabat behar dutenak hilean 180.000 pezeta. Halere, kontuan hartu behar da datu guzti hauek probisionalak direla. Ez dira ez, txantxetako kon-


tuak, baina zerbitzu hori eman behar denez, hobe izanen da herrian bertan izatea. Bestalde, kontuan eduki behar da beste proiektu batzuk ere badaudela (polikiroldegia, futbol zelaia, auzoetako bideak...).

Udal diruzain lanpostua sei hilabetez betetzeko deialdia ireki du udalak

Udal diruzaina sei hilabetez ordezkatzeko (maiatzaren 1etik urriaren 31 arte), lanpostuaren deialdia egin du Udalak. 'C' nibelari dagokion soldata kobratuko du eta kontabilitate publikoaren sistema berria martxan jartzea izanen da bere lana. Lanpostu honetara aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira: 1997ko hilebetez baina lehen Leitzan enpadronatua egotea, beste lan batean ez aritzea, Enpresari edo Ekonomi Zientzian diplomaturia edo lizentziatua izatea, euskara mintzatua eta idatziz jakitea eta informatikan ezaguera nahikoa izatea (agiria aurkeztu beharko da).

Apirilaren 2a arte izanen da izena eman eta agiriak aurkezteko epea. Onartu eta baztertuen izangaien zerrenda, hamar egunez egonen da jendaurrean, alegazioak egin ahal izateko. Alegaziorik ez bada aurkezten, onartuen artean zozketa publiko eginen da Udaltzeko Batzar Aretoan, apirilaren 14ean, eguerdiko 12etan.

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

ASTE SAINDU BITARTE



Basa Kabi baserrian bihurtu da.
Baserriko menua.....2.200 pta.
Sagardotegiko menua...2.950 pta/per.
Banabar jatea1.900 pta.

Basa Kabi

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



Leitzako Udala

Diruzaina ordezkatzeko 6 hilebeteko kontratua eskeintzen da

- Baldintzak: idazkaritzan
- Hautagaiak: apirilaren 2a arte

BAZTAN

Udaberri Kulturala ospatzen ari da Elizondon martxoaren 10etik apirilaren 12ra

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Elizondoko Kultur Batzordeak

JOSEBA IGARABIDE

Elizondoko Kultur Batzordeak Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz antolatutako *Udaberri kulturala* arrakastaz burutzen ari da asteotan. Martxoaren 10ean hasi ziren ekitaldiak eta apirilaren 12ra arte luzatuko dira. Dagoeneko zenbait organu kontzertu eta solasaldi eman dira eta joan den ortzegunean, *Baztan Balleko oroitzenak* izeneko mahainguru interesgarria burutu zen, Juan Eraso eta Juan Antonio Lekunaren partehartzearekin.

DANTZA, TXISTUA, MAHAINGURUA ETA ANTZERKIA

Etorkizunera begira, igande honetan, *Baztan-darrak dantzan* izeneko erakustaldia erakutsiko dute Baztango dantzariak elizatarian, atsaldeko 8etan. Datoren ortzilerien, apirilak 4, txistu kontzertua eskainiko dute Elizondoko txistulariek Arizkunenea Kultur Etxeko atarian, atsaldeko 7,30etan.

Apirilaren 10ean, ortzeguna, udaberriko folkloreaki buruzko solasaldia eskainiko du Jose Maria Satrustegik, Kasinoan, atsaldeko



Baztango dantzariak bertako dantzak erakutsiko dituzte igande honetan elizatarian, arratsaldeko 8etan Artxiboa

7,30etan. Biharamonean, ordu eta leku berean, *Baztango bailara hurbileko urruntasunetik (edo alderantziz)* izeneko mahaingurua bu-

rutuko da. Solasean izanen dira Ramon Arotzaren, Alejandro Arizkun, Jose Antonio Meotik, Patxi Urrutia eta Peio Salaburu.

Apirilaren 12an, larunbata, azkenik, Iruiritako antzerki taldeak antzeslana eskainiko du Kasinoan, atsaldeko 7,30etatik aitzinera.

Hainbat ekitaldi burutu dira Lekarozko Institutuan

Martxoaren 8an, Emakumearen Eguna zela eta, Lekarozko institutuan 6an Egizan emakume taldearen eskutik solasaldia eman zen, bertako ikasle batzordeak antolatuta. Martxoaren 24an berri, Jarrai gazte era-

kundearen eskutik bertze solasaldi bat eman zen «Jarrairen erroika egungo testuinguru sozio-politikoan» gaiaren inguruan.

Martxoaren 25ean, Egun Kulturala antolatu zen institutuan eta bertze zenbait ekitaldi-

ren artean, kontzertua eta Elizondoko COFES-Haizeako kideen solasaldia izan ziren. Azken honetan, sexualitateari buruz aritu ziren. Ekitaldi interesgarriak guztiak, eta jendearen erantzuna ere ona izan zen.

flash

◆ **Azpilkuetako** bertso afarian, 85 lagun bildu ziren martxoaren 14an. Lizaso, Telleria eta Murua bertsuok aditu bidenabar, ederki afaldu zuten.

◆ **Erratzuko kanpinak** denboraldi berria hasi zuen martxoaren 14an, festa ttiki baten bidez. *Mal de ojo* taldearekin musika kontzertua izan zen eta jende aunitz bildu zen.

◆ **Udaberriko kontzertua** eskaini zuen joan den ortzilerien, Elizondoko Abesbatzak. Jende aunitz bildu zen korukoan ahotsak aditzera eta gustora ateri ziren.

◆ **Gure-Kaiolako mus txapelketa** Martxoaren 15ean Iruiritako Gure-Kaiola elkartearen, mus txapelketaren finalak jokatu ziren. Aurtengo txapelketan hamasei bikote aritu dira eta txapelidunak Joaquin Obregozo eta Tiburcio Dorregarai suertatu ziren. Finalaren ondotik, 40 lagun bildu ziren afarian.

Ezkentzok Agurrak Afariak etab... **AKORDEOI-TEKLATULARIA**
ANGEL M^a MENDIBERRI ALEMAN
Iriondo Etxea, I.D
☎ 45 33 37 • ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

DANBORIENA
OKINDEGIA GOZOTEGIA
☎ 453403 - ARIZKUN


BAZTAN

Basaburuako taldea txapeldunorde eskualdeko futbito txapelketan

Azienden saneamendu kanpaina burutzen ari da ITG

Josu INZIARTE

San Jose egunean Donezteben jokatuako finalean Basaburuako taldea txapeldunorde suertatu zen, Legasako Xanpale taldearen kontra 5-4 galdu baitzuten. Hamabi talde aritu dira txapelketa honetan eta Basaburuako taldean Aniz, Berroeta eta Zigako gazteek jokatu zuten. Bikain aritu dira eta sari nagusia eskuratu ez badute ere, txapelketa ederra jokatu dutela ezin da ukatu.



Azienden saneamendu kanpaina egiten ari da ITG

Behi saneamendu eta ardi saneamendu kanpaina burutzen ari da Baztanen ITG. Aldez aitzinetik deitzen dute abeltzainak eta herriz herri ibiltzen dira. Horretarako behiak ikuiluan kontzea eskatzen dute eta bere helburua bruzelosia eta honelako eritasunak desagertaraztea omen da. Dirudienez, nahiko ongi dago hemengo azien osasuna.

Bixente Setuain pelikula arrakastatsuan

Inguru hauetan hain ezaguna den Bixente Setuain akordeolaria Montxo Armendarizen «*Secretos del corazón*» filmean agertzen da. Filmean ere akordeoia jotzen du, aski ongi gainera. Gogoratu behar da pelikula honek arras kritika ona izan duela eta dagoeneko Berlinek Zilarrezko Hartza eskuratu duela. Oraindik Oscar batekin ikusiko ote dugu Bixente?

Almandozen karrika berritzen

Almandozen karrika nagusia eta harrobirako bidea goratu eta berritzen ari dira. Hortaz gain, sarreran berendaleku ederra egiten dute. Urtero bezala, Aste Sainduko larunbatean Auñamendin bilduko dira gazteak bazkari ederra egiteko.

Gaztetxoan margo erakusketa

Arizkunenea Kultur Etxean bartz eta hamabi urte arteko 41 gaztetxoan margo erakusketa burutzen ari da apirilaren 26a arte. Tomas Sobrinok zuzendutako ikastaroan egindako lanak, astelehenetik larunbatera, 6,30etatik 8etara ikusten ahal dira.

Korrikak lagun aunitz bildu zituen

Jende aunitz izan zen bide guzian barna eta adin guzietako jendea ikus zitekeen. Arras balorazio positiboa egin zuen Txus Pernaute, Baztango AEKko arduradunak, kilometro guziaz saldu baitziren eta partehartzea uste baino haundiago izan baitzen.

flash

Ziga haunditzen

1996an haur bat eta aurten oraindik inor sortu ez bada ere, etxe berri aunitz egiten ari dira azken boladan Zigan.

Xorroxin kontzertua larunbatean

Larunbat honetan, martxoak 29, La Polla, Balerdi-Balerdi eta P.L.L.T. taldeek kontzertua eskainiko dute 10,30etatik aitzinera Erratzuko frontoian. Sarrerekin batera «*Belarriak Goxatzen-2*» Kompakt diska banatuko da, kontzertuan parte hartuko duten hiru taldeen bina kantu bilduz. Apirilaren 19an, berriz, Flaco Jimenez etortzeko da Elizondora. Musika kontuekin segituz, aipatu behar da *Rigor Mortis* Elizondoko taldeak make-ta plazaratu duela.

Arkupeak elkar-teak

antolatutako soinetak beste burutuko da apirilaren 3an Iruñean. Urtero bezala, autobusak aterako dira eskualdetik. Hezurak mugiarazi ondok, bazkaria izanen dute.



ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnok: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274



EGUN NABARMENAK
AHAZTEZINAK
EGITEN DITUGU

KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

ZURE JAUNARTZE
EGUNEKO ARGAZKI
HOBERENAK

ESKATU ORDUA

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik
© 45 21 21 • LEKAROZ

ZUGARRAMURDI



Xabierre joan ziren bortz zaldun eta zaldiak. Ondoan, Joanaren bataioa, bi urte terdian herrian egin den lehenbizikoa



Bi urte terdian lehen bataioa

Duela bi urte terdi Zugarramurdin ikusi ez zena martxoaren 2an ikusi zen: haur baten bataioa. Egun horretan apezak Joanari burua busti ondotik, haurrek besta ederra eta ia-ia ahantzia zuten diru eta goxoki biltzea izan zuten elizatarian. Jakitera orain zenbat denboraz esperatu beharko duten, momentuan ez baita hardunik bistan ageri.

Istripua Atxurian

Martxoaren 16an Iruñeko talde bat Atxuriko gainera igan zen. Emakume batek istripua izan ondotik izterra hautsi zuen. Komediak ibili behar izan zituzten handik beheiti besoetan, bizkarrean eta ahal zen moduan jausteko Sarako lezeetaraino. Behin haraino ailegatuta bonberoen anbulantziak Iruñera eraman zuen.

Xabierreko erromesaldia zaldiz egin zuten bortz herritarrek

Tuteratik Bardeak gurutzatuz bi eguneko bidaia izan zuten

MARGARI ETA KORO

Lehen asto bat izan zen eta orain berriz, zaldiek hartu dute peregrinazioaren bidea: Xabierreko lehenbizikoa

erromesaldira herritik bortz zaldun eta zaldi abiatu ziren: Alfontxo Tximistarekin, Txarli Binborekin, Pedrito Kanelorekin, Teofilo Gaztainekin eta Juanmi Xu-

rirekin. Ortzegunean atera ziren herritik Tuterara aldera eta biharamonean abiatuz, bi eguneko bidaia egin zuten Bardeak gurutzatuz, Xabierreraino ailegatzeko,

120 kilometro denetara. Bidai honetan 40 zaldun zeuden, bertze komunitateetatik eta bakarren bat Montanatik (Estatu Batuak) etorriak baitziren.

URDAZUBI

Elektrifikazio lanen lehen fasea egiteko lehiaketa atera du du Udalak

Proposamenak apirilaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean

TTIPI-TTAPA

Urdazubiko udalak enkante publikoan jarri du, alde zuzeneko onarpenarekin, elektrifikazio lanen lehen fasearen adjudikazioa. Hasiarako prezioa 27.883.126 pezetakoa da (BEZ barne). Tentsio baxuko sarea berritu eta Alkerdi eta Tomasenea inguruetako transformazio zentruak eraikiko dira lehen fase honetan eta Nafarroako Gobernuak 15.150.000 pezetakoko di-

rulaguntza onartua du. Lanak sei hilabeteko epean akitu beharko dira, beti ere onetsitako proiektuari segituz. Eskaintzak, Urdazubiko Herriko Etxeko idazkaritzan aurkezteko epea apirilaren 2an akituko da. Aurkeztu beharreko dokumentazioaren eta gainerako xehetasunen (proiektua, baldintza teknikoaren plegua eta klausula administratibo partikularra...) Herriko Etxean daude interesatuen eskura.



15 milioiko laguntza emanen du Gobernuak elektrifikazio lanetarako

Haur Kantu txapelketa apirilaren 6an burutuko da polikiroldegian

Lapurdikoko finalerdia izanen da

JACQUELINE ETA MIXEL

Haur Kantu txapelketaren aurtengo edizioaren Lapurdiko finalerdia datorren igandean, apirilaren 6an, arratsaldeko 3,30etarik aitzin burutuko da Sarako polikiroldegian. Hunen antolakuntza orokorra Haize Berri (Izura) elkarteari zor diogu eta herri mailan, berriz, Olhain ikastola eta Zazpiak Bat elkarteak bultzatzaile dira. Eskualde bakoitzak finalerdi bat ukanen du, beraz Sarari dagokionez, Lapurdiko finalerdia izanen da eta, hunetarik landa, lau hobere-nak hautatuak izanen dira Miarriritzen, erearoren 29an eginen den finalerako.

Txapelketa hau Euskal Herri osoari idekia da.



Martxoaren 8 huntan, emazteak hobere-nak atera ziren

Herriko Etxeko mus lehiaketa

Herriko Etxeko mus lehiaketa martxoaren 8an burutu zen. 28 bikotek parte hartu zuten eta huna finalaren ondorioak, hirutan sailkatu-rik:

• **Goi maila:** Txapel-
dun, Marthe Cebedio

eta Madeleine Iturria; txapeldunordea, Jerome Pradere eta Nicolas Barenetxe; 3. Xan Garat eta Stephane Etxebeste; 4. Bruno Martin eta Manu Agerre.

• **2. maila:** Lehen Marie Helene Berruet eta Isabelle Hiriart; Bigarren, Mixel Saint Martin eta

J. Philippe Amorena.

• **3. maila:** Hemen hobere-nak Manex Bergara eta Antton Bidegain atera ziren, bigarren utziz Fabienne Goyetche eta Isabelle Beoteguy.

Hauet denei sariak banatu eta muszaleek bildots errea jateko parada ukan zuten.

Ikastolaren Biltzar Nagusia

Olhain ikastolaren biltzar nagusia martxoaren 14an iragan zen, 27 kide biltzen zirelarik. Urtean iraganak aipatu eta, urteko gastu eta diru iturrien txostena banatu zen. Mixel Gerendiain, azken urte hauetan lehendakari zenak, bere kargua utzi du eta Bittori Etxeberri, ikastolako burasoari eman dio lekukoa, Arantxa Indaburu lehendakari ordea izanen delarik.

Korrika-10

Hamargarren Korrika kari Sarako 30 bat euskaltzalek martxoaren 16ko gau ilunean beren lasterkaldia eskeini zuten euskararen alde Senpereko aintzira eta Zuraide artean.

Basurde jatea

Martxoaren 15ean, Sarako ehiztariak antolaturik 130 bat lagun bildu ziren Omordiako jantokian basurde jatea kari. Hor ziren ehiztariak eta ehizatzenko beren eremuak uzten dituzten baserritarrak.

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAI ME URUTIA 29
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA
Michel eta Kattin
Guerendiain
Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
© 58 02 78

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

EZKONTZAK

Patxi Pagola Igiñiz eta **Marta Irazoki Agirre**, Irun eta Berakoa, martxoaren 15ean.

Jose Ezkurra Zunzarren eta **Isabel M^a Apezetxea Lizaso**, Doneztebekoak, martxoaren 8an.

Jose Gabriel Larretxea Leiza eta **M^a Pilar Bidegarai Etxenike**, Arantza eta Iruritakoa, martxoaren 15ean.

Miguel Loiarde Mutuberria eta **M^a Jose Otxandorena Fagoaga**, Zubietakoak, martxoaren 8an.

JAIOTZAK

Javier Sein Goñi, Iturengoa, otsailaren 25ean.

Mikel Xabier Elizalde Zugarramurdi, Lekarozkoa, otsailaren 24an.

Louis Machicote, Sarakoa, martxoaren 1ean.

Mañel Woischwill Viguera, Leitzakoa, martxoaren 1ean.

HERIOTZAK

Estefania Goienetxe Iturbide, Zugarramurdikoa, otsailaren 21ean, 87 urte.

Juanito Mihura Zubieta, Zugarramurdikoa, otsailaren 24an, 53 urte.

Genoveva Larrea Bertiz, Berakoa, martxoaren 13an, 82 urte.

Jose Agirre Irazoki, Berakoa, martxoaren 15ean.

Celestino Sarratea Arrupea, Doneztebekoa, martxoaren 15ean, 74 urte.

Maria Arbizu Goñi, Doneztebekoa, martxoaren 18an, 85 urte.

Bartolome Igoa Irigoien, Lesakakoa, martxoaren 7an, 87 urte.

Maximiano Larralde Otxoteko, Lesakakoa, martxoaren 14an, 81 urte.

Juan Manterola Berges, Lesakan, martxoaren 16an, 82 urte.

Laurent Elizalde, Sarakoa, martxoaren 9an, 57 urte.

Francisca Antonia Andueza Larralde, Lesakakoa, martxoaren 15ean, 86 urte.

Jose Mari Mikelarena Juanenea, Saldiasakoa, martxoaren 14an, 31 urte.

Gure opari berezia
jaio berriendako



IRUÑEKO KUTXA

OPERAZIOA PNEUMATIKO ALDAKETA

Bi aukera zure segurtasunerako

✓ **4 eraman 3 ordaindu**

✓ **%25eko deskontua lortu**

Gehien interesatzen zaizuna aukeratu

**Eskulana eta
BEZ barne**



PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. 2/g - Tfnoa.: 58 04 31 - ELIZONDO



TALLERES SATESTEBAN

Leitzako Errep. Kma.1 - Tfnoa. 45 02 82 - DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.

Irun - Iruña Errep. Tfnoa.: 63 06 21 - BERA





UDABERRI KULTURALA Elizondon

Martxoaren 30ean dantza erakustaldia eskeiniko dute Baztango Dantzariak, "Baztandarrak dantzan" izenez deitu duten ekitaldiaren barnean. Elizako atarian izanen da dantzaldia, meza nagusiaren ondotik.

Apirilaren 4an "Txistu soinua" izeneko ekitaldia izanen da Arizkune-

nean, arratsaldeko 7,30etan hasita, eta Elizondoko Txistularien eskutik.

Apirilaren 10ean Jose Mari Satrustegik solasaldia eskeiniko du, "Udaberriko Folklorea" gaiaren inguruan. Hitzaldia Kasinoan burutuko da, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera.

La Polla, Balerdi Balerdi eta PiLT taldeak Xorroxinen eskutik

Martxoaren 29an joko dute Erratzuko frontoian

Larunbat honetan Erratzura hurbiltzen den guziak hiru talde horien kontzertuaz gozatzeko gain, eskuin aldean ageri den bezalako konpakt-a eraman ahal izanen du etxera. Konpaktean La Polla, Balerdi Balerdi eta PiLT-en bina abesti bildu dituzte, hasierako

maketakoa bata, eta azken lanekoa bertzea. Xorroxin Kontzertuak da antolatzailea, 85. urtetik hona daramaten ibilbideari segida emanez. 12 urte hauetan, Euskal Herriko talde haundienak ekarri dituzte Erratzura, lehenbiziko kontzertuan egondu ziren Barrica-

da eta La Pollatik hasi, Hertzainak eta Itoiz bezalakoekin segitu eta Zarama edo Koma taldeak ahanzi gabe. Punta-puntakoez gain, bertako taldeei ere lekua egin izan diete, eta horrela, iazkoan Rigor Mortis eskualdeko taldeak jo zuen bertze batzuekin batera.



Larunbata 29, arratseko 10,30etatik aitzin: La Polla, Balerdi balerdi eta PiLT Erratzuko frontoian. Sarrerak: 1.500 aurrez eta 1.800 takillan.

TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu

Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako 40 komertzio eta zerbitzuetan sekulako deskuentoak egiten dizkiote dagoeneko TTIPI TXARTELA duten erosleei.

Ez galdu aukera. Eskatu bat zuretzat.

631188

Plazaolako Partzuergoaren txirrindulari taldeak hasi berria du denboraldia

- Luis Vicente Otin, Leitzako txirrindulari profesional ohia, dute zuzendari
- Txirrindulari gazteak daudenez, aurten kirola egitea beste helbururik ez dute

AITOR AROZENA

Lehen denboraldia-ri ekin dio Plazaolako Turismo Partzuergoaren izenean, Leitzako Gurratzmendi elkarrekin plazaolako txirrindulari taldeak. Luis Vicente Otin profesional ohia izanen da zuzendaria. Ez da bere lehen esperientzia honelako lanetan, «*bi urtez zuzendariorde bezala egon nintzen Bizkaiko AVSA taldean. ACRn ere egon nintzen 1993an. Halere orain oso talde gaztea daukat, gehienak lehen urtea dutenak afizionatu mailan. Esperientziaberrria da nerretzat baina erronka gustatzen zait*». Laguntzaile bezala, Sicesal taldean zuzendari izandako Gerardo Telletxea lesakarra, Jesus San Emeterio donostiarra eta Lourdes Ceballos leizarra izanen ditu. «*Beraiekin denboraldia banatuz, beste edozein afizio bezalakoa da hau*» dio Oti-



Hirutan hogeit bat laisterketetan parte hartuko du Plazaolako Partzuergoaren taldeak

nek. «*Ni 12 urtez geroztik mundu honetan sartua nago eta orain 38 bete behar ditut, pentsa! Bete gustatu zait txirrindularitzaren mundua eta adinarenatik bizikleta gainean parte hartzerik ez dudanez,*

kotxeam joanen naiz». Bi milioiko aurrekontua estaltzeko Plazaolako Partzuergoaz gain, Eba sagardoak eta Bearzun keramika pabilioiak laguntzen dute, zenbait merkatal-etxeekin batera. ●

Luis VICENTE OTIN Zuzendaria

«Estudioak deskuidatu gabe kirola egitea da aurtengo helburua»

■ Zein helburu dituzu zuzendari bezala?

□ Batez ere lehen eta bigarren urteko afizionatuei zuzendutako probatan parte hartu nahi dugu. Euskaldun txapelketako 16-18 karreratan, jendea egiten joateko. Gero elitekoekin gehienez 35 karrera eginen ditugu. Aurrekontu honenkin, helburua estudioak deskuidatu gabe kirol pixko bat egitea da, ezin dugu gauza haundirik eskatu.

■ Laisterketaren baten aurrealdean ibiltzeko aukerarik ikusten duzu?

□ Dauzkagun mutilekin ez dugu deus deskartatu behar. Maila berrira pasatu dira, afizioa daukate eta entrenamenduetan gauza politak ikusten zaizkie. Gero karreratan eta konpetizio gogorretan ikusi beharko da. Halere, zaila da jubenetatik pasatu berrikan, lehen urtean, postu onak egitea.

Banan Bana

Txirrindularia	Herria	Nondik	Adina
Xabier Fernández	Ibarra	Lur Kirolak	21
Jorge Ruiz	Lizarrar	Independ.	20
Luis Legarda	Larrion	ACR	20
Iñaki Monreal	Barañain	Bi-Lux	19
Adur Ederra	Iruña	Bi-Lux	19
Oskar Subizar	Legasa	Sigma	19
Jon Sanzberro	Etxalar	Sigma	19
Mikel García	Bera	Sigma	19
Jorge Millán	Azkoien	C.Rural-Peraltés	19
Jose Manuel Martínez	Barintano	Trans. Estella	19
Joseba Erro	Lekunberri	Irabia	19
Jesus Angel Martínez	Biana	Trans. Estella	19
Urko Zubillaga	Leitza	Mapfre	19
Carlos Alberto Sánchez	Mexico	Sigma	19
Jose Marcilla	Alfaro	C.Rural-Peraltés	19
Fco.Javier Gracia	Tutera	C.Rural-Peraltés	19
Aitor Huarte	Iruña	Independ.	19

BOITE
fronton

❖ **Mungiaiko Trobika txapelketa**

irabazi zuen maila berezian Juantxo Apezetxea goizuetarrak eta Jesus Mari Almandoz lesakarrak osatutako bikoteak. Finalean 22-14 irabazi zieten Berasaluze VIII. eta Txikito IX. bizkaitarrei.

❖ **Elizondoko Giltxaurdi futbol-zelaian**

argi instalazio berria estreinatuko dute, seguraski Ortze-gun Santuan Baztanek Calahorra taldearen kontra jokatu den partiduan. Honela, elkartearen 75. urteurrena ospatu nahi dute. Ea maila mantenduz ospatzerik baduten.

❖ **San Jose eguneko pilota partiduak**


Elizondon, profesionaletako partiduan, Salaberria eta Galarzak 22-12 irabazi zieten Mikel Goñi eta Arretxeri. Galarzak partidu polita jokatu zuen eta Salaberriari gauzak errex utzi zizkion aitzin koadroetan Goñiri nagusitzeko. Lesakan, partidu irekia jokatu zen, profesionalak eta afizionatuak nahasiz. Errandonea II eta Almandozek 22-11 irabazi zieten Telletxea eta Apeztegiari. Aitzineko partiduan, Irazoki-Mitxelenak 15-22 galdu zuten Hirigoien-Otxandorenaren kontra.

Felix Gonzalez da Baztan futbol taldeko entrenatzaile berria

- Javier Amiano ordezkaturko du denboraldi bukaera arte
- Taldea hirugarren mailan mantentzea izanen du helburu

Baztan futbol taldea Hirugarren mailako sailkapenaren zulotik ateratzeko asmoarekin entrenatzailea aldatzea erabaki zuen Zuzendaritza Batzordeak martxoaren 11n. Honela, Felix *Teddy* Gonzalezek, Jose Mari Santesteban bigarren entrenatzaile bezala duelarik, ordezkaturko du Javier Amiano denboraldi bukaera arte.

Entrenatzaile berriak adierazi duenez, egoera «*larria*» da, baina taldea aitzinera aterako dela uste du. «*Zenbait jokalariekin solastu dut eta egoera gainditzeko ilusioarekin ikusi ditut. Hemendik denboraldi bukaerara daukagun guzia eman behar dugu*». Zailena morala altxatzea izanen dela uste du Gonzalezek. Hailere, entrenatzaileak badiu esperientzia honelako egoeratan, lehen ere



Javier Amiano, entrenatzaile ohia



Felix Gonzalez, entrenatzaile berria

Hirugarren mailatik jausteko puntuan zegoela hartu baitzuen Baztan futbol taldea. «*Orduan bi puntu falta izan genituen maila mantentzeko*» dio. Gainera, Baztan, Oberena, San Juan, Burlades eta Osasun jokatu du.

Javier Amiano en-

trenatzaile ohiak komunikabideei erranda-koaren arabera, gauza aunitz elkartu dira taldea egoera kaxkar honetan egoteko. «*Jende guti ligaluze batean, jokalaria aunitzen lesioak, emaitzek ere ez dute lagundu... Ez dugubi partidu segidan irabazi, eta*

horrek aunitz erran nahi du». Bere ustez erreza goa da maila mantentzea, berriz mailaz igotzea baino. «*Jausten bagara bertze bizpahiru urte esperatu beharko dira berriro goitzeko. Preferentek ez du inolako zerikusirik Hirugarren mailarekin.* ».

Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako baliagarriak diren hiru proba burutuko dira Baztanen

Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako puntuagarriak izanen diren hiru probetako zirkuito bat antolatu du aurtien Gartzaingo kirol taldeak, Iruñeko Kutxa Munizipalaren babesaz eta Baztango Balleko Etxearen lan-kidetzarekin. Hiru probak Baztanen burutuko dira: apirilaren 27an Elizondon, ekainaren 28an Erratzun eta urriaren 12an Gartzainen.

Partehartzaile guzietan proba bakoitzeko sailkapena eta Nafarroako txapelketarako puntuazio orokorra postaz bidaliko zaie. Proba bakoitzerako kuota 700 pezetakoa da eta 1.500 pezeta-

koa hiru probatan parte hartzekotan eta nahi duen guzietan parte hartu ahal izanen du. Kirolariak lau mailatan banatuko dira, junior, senior, beteranoak eta emakumezkoak. Laisterketa bakoitzean puntuazioa honako hau izanen da: 50 puntu lehendabizikoarentzat, 49 bigarrenak, 48 hirugarrenak, eta elkarren segidan 50. partehartzailea arte (puntu 1). Gainerakoek ez dute punturik lortuko. Azken sailkapenean hiru probetako bi puntuazio onenak kontuan hartuko dira. Xehetasun edo argibide gehiago jakin nahi izanez gero, 580813 telefonora deitu behar da, Patxi Pe-

ña Roman, Gartzain Kirol Taldeko lehendakariarekin harremanean jarritz.

JOAN DEN URTEAN SORTUTAKO KIROL TALDEA

Orain dela lau urte antolatu zen Nafarroako lehendabiziko Mendi Duatloia Gartzainen. Nahiz eta kirol ezezaguna izan inguru honetan, kirolarien artean onarpen handia lortu du azken urte hauetan.

Gartzain Kirol Taldea 1996an sortu zen, zenbait gazteren ekimena bideratzeko eta gaur egun, txapelketen antolaketaren arduradua.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ERRATZU

► **Martxoaren 29an** La Polla, PiLT eta Balerdi-balerdik joko dute, arratseko 10,30etatik aurrera. Sarrerarekin batera konpakt diska oparituko dute, agortu artio bederen.

IGANTZI

► **Apirilaren 12an** Joxe Ripiau taldearen kontzertua izanen da Igantzin, Erausian Gazteen Euskara Taldeak antolatua. Biltoki elkartearen izanen da zita, gaueko 11etatik aitzinera. Ederra Joxe Ripiau!

ELIZONDO

► **Apirilaren 4an** Elizondoko Txistularien eskutik, "Txistu soinua" izeneko kontzertua izanen da Arizkunenea kultur etxeko atarian, arratsaldeko 7,30etan hasita.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

► **Apirilaren 10an** Jose Mari Satrustegik "Udaberriko Folklorea" ri buruzko hitzaldia emanen du Elizondoko Kasinoko aretoan. Ordua: Arratsaldeko 7,30ak.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 10.400 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 200 pta./kilo
- **Zerramak**: 125 pza./kilo bizerik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pza/kg. Kanakal
- Extra510
- 1.koa490
- 2.koa470

- **Urruxak:** Pza/kg. Kanakal
- Extra530
- 1.koa500
- 2.koa480
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 23.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 24.000 eta idixkoak 36.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 340 Pza./Kg. Kanakal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanakal.

DATU ITURRIA: EHNE


HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Saratik Urdazubira

Udaberria ailegatu zaigula eta, mendira ibilaldia proposatuko dizuegu oraingoan. Aspaldian kontrabandisten bidea izandakoak, paisaiaz gozatzeko aukera ederra eskeintzen digu gaur egun. Sarako plaza hasiko dugu ibilbidea, xuri eta gorritz pintatutako GR markei segituz. Kilometro batzuk eginda koan (5 bat edo) Atxuria edo Peña Platako magaletik pasa eta handik Sara, Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeetara ateriko gara. Kobazuloetatik igaro,

Zugarramurdiko herria gibelean utzi eta Alkerdi auzoan barna beheiti hartuko dugu, karreteraz Leorlas auzoraino. Hortik aitzinera aisa joanen gara Urdazubiko herriraino. Bidea ezagutzen ez baduzue hartu mapa bat, hemen bota ditugun datuak baino gehixeago beharko dituzue eta. Bertzerik ez, ongi pasa eta kasu sorginak zirikatatu gabe!

belarriak



goxatzen-2

Horrelako bista ederrak aurkitu ahal izanen dituzu Sara aldean eta, baina kobazuloek ere badute beren xarma, eta komeni da bixita ttiki bat egitea bederen.

DISKAK

belarriak



goxatzen-2

«Belarriak Goxatzen-2»
La Polla
P.L.L.T.
Balerdi-Balerdi

Joan den urtean zabaldutako bideari heldu dio berriz ere Xorroxin irratiak, produkzio propioko CDa karrikatuz. Larunbat honetan, Erratzun, kontzertua eskainiko duten hiru taldeen bina kantu biltzen ditu konpakt honek eta sarrerarekin batera banatuko da. P.L.L.T.k zabaltzen du diska, lehen maketako kantu batekin eta

grabatu berria duen diska-ko *Erraietatik* kantuarekin. La Polla talde historikoaren lehen eta azken lanak bildu nahi dira: 1981eko maketarik *Banco Vaticano* eta azken diskatik *Tan sometido* sartu dira. Gauza beretsua egiten da Balerdi-Balerdi-koekin. 1991ko maketarik *Hiri hontan* eta aurtengo diskatik *Philosophia* jaso dira.

JAKIN BEHARREKOAK

Hamar aholku estresari aurre egiteko


1-Konfidantzako norbaitekin barrenak hustu, kontaizkiozu zure burukomin guzi-guziak, ximpleenak ere. Ez izan erridikuluaren beldur, gero argiago ikusiko baitutuzu gauzak.

2-Egoera gatazkatsuek saihestu behar dituzu, nahiz eta batzutan zaila suertatzen den, horretan saiatu.

3-Jateko orduan dieta egitea komeni da, osasuntsua eta anitza, batez ere, barazki eta frutaz osatua. Haragia sahiestu behar duzu, baita gaingabetuak ez diren esnekiak, azukre errefinatua eta gataza ere. Alkohola ez da komeni, baina hartzekotan neurritz hartu.

4-Ariketa fisikoak egin: Edozein kirol praktikatzek, energia, tentsio eta agresibitateak hustutzeko balio du. Gainera, osasuntsu egoteak eguneroko bizitzak ematen dizkigun frustrazioak hobeki jasaten laguntzen du.

5-Zure familia eta lan-



Estresak ondorio psikologikoez gain fisikoak ere sor ditzake.

6-Bizitza armonizatzen saiatu behar duzu, gauza bako txari bere denbora eskeini eta guziarekin orekan egotea lortu behar duzu.

7-Bizitza sexual osasuntsua eramatea komenigarria da. Sexu aktibitateak ongizate fisiko eta psikologikoa haunditzen du. Horretaz aparte, atsegin iturria da sexua, tentsioa lasaitzeko modu ezinhobea, aizue.


8-Ez larritu, dena ezin da kolpe bakar batez kon-

pondu. Zure ideiak eta ekintzak ordenatu eta poliki-poliki gauzatu, bertzenaz, arazok gaindituko zaituzte.

9-Erlaxatze teknikak erabili: gustora exeri, toraxa zuzen duzula eta arropak estu izan gabe. Sudurretik arnas hartuz, bete itzazu birrikak, eutsi arnasari momentu batean eta pixkanaka hustu. Errepikatu zenbait aldiz.

10-Muskuluak erlaxatu: Ukabilak itxi, gogor estutu eta ondoren lasaitu. Lepoarendako, burua gibelerat bota eta bi aldetara jiratu xua-be-xuabe. Gorputzaren bertze atalekin berdin egin dezakezu, lehenbizi tentsioan paratu eta gero lasaituz.

LIBURUAK



«DOMIKU GARAT»
«Biltzarraren defenditzaile»
Isidoro Fagoaga
EREIN

Idazle izateagatik baino, tenore zelakoz egin zen ospetsu Isidoro Fagoaga. Berako herrian jaioa eta mundu guziko eszenatokietan ibili zen kantuan. Buenos Airesen «Gernika» eta «Eusko Jakintza» aldizkariaren bultzatzaile izan zen, eta hainbertze lan idatzi zuen, gazteleraz gehienak. Orain Jon Etxaidek itzuli di-

gu hoietako bat euskarara, Isidoro fagoagaren asmo-ei jarraiki. Beratar tenore haundi honen bizitzari buruzko kontuak ageri zaizkigu liburuan, bere xede nagusien nondik norakoetaz gain. Lapurdiko gazteak biztea, esnaraztea omen zen bere helburu nagusienetako bat.

(ARGIAtik bildua)

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

► Martxoaren 30ean

Alkurruntzera joanen dira Baztango Mendi-goizaleak. Elizondo-Pausoxar-Atxuela-Alkurruntz-Mendialdea.

► Apirilaren 6an

Urdazubira joanen dira Baztango Mendi-goizaleak. Amaiur-Otsondo-Urdazubi-Telleria-Enekoborda-Amaiur.

ZINEA

LEITZA

► Apirilaren 4 eta

6an 'Sobrevivir a Picasso' eta 'La bruja novata'.

► Apirilaren 11 eta

13an 'La Celestina' eta 'David el Gigante de piedra'.

KANTU TXAPELKETA

SARA

► Apirilaren 6an Lapurdiko finalerdia burutuko polikiroldian arratsaldeko 3,30etan.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

► Martxoaren 24tik

30era Lesaka, Ituren, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

► Martxoaren 31tik

apirilaren 6ra Etxalar, NARBARTE, Leitza, Elizondo (Iturralde), Goizueta.

► Apirilaren 7tik

13ra Arantza, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Goizueta, Urdazubi.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

Donamarian baserria salgai, bere baratze eta borda ttikiarekin. Sotoa, etxebizitza, ganbara eta atarian larraina. ☎ 510540.

ERATSUN. Pisua bajera-ekin salgai. ☎ 510167 (gauetan).

LEITZA. Pisua salgai. 90m² Oso eguzkitsua. 8.000.000 ☎ 510167 Gauetan.

BERA. Bi solairuko etxea salgai, bere lorategiarekin. ☎ 631422.

ARANTZA. Baserria salgai, eremu eta pinadiarekin. Bizitzera joateko moduan. ☎ 943.633482. Joseba.

LUZAIDE. Baserria salgai, Naturan bertan. ☎ 450326

BERA. 90m²ko pisua salgai. Mobleztatua. ☎ 450369.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

Borda edo etxe bat erosi nahi da. ☎ 450326. Gauze.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

Kortesen (Erribera) etxe erreformatua alokatzen da udarako. ☎ 630322.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

MALERREKA. Etxe edo pisu merkea errentan hartu nahi da. Erreformak gure kontura. ☎ 450326.

ELIZONDO. Pisua errentan hartu nahi da akademia paratzeko. ☎ 450326.

Borda baten bila gabiltza, errentan hartu edo erosteko. Bikote bat gara haur batekin. ☎ 450056.

Baztan-Malerrekan etxea, borda edo soroa erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 451746 (goizez).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

BERA. 60m²ko garajea salgai Burga plazan. Ura eta argiarekin. ☎ 631137 eta 630941.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Lokal komertziala errentan ematen da. ☎ 637306.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

Juanjo ERRO

Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak
konpontzen ditugu
• LESAKA •
☎ 989.800249

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

Kartelak, buzoiratzekeo paperak, bisita txartelak, faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188 Bulego orduetan.

M^{ra} Dolores Miñana
TOPOGROFOA
NEURKETA • PLANOAK
Lar neurketak, Laberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68. 3. esk. ELIZONDO

LANA

301 ESKARIAK

BERA. Sukaldaria eskaintzen da asteburuetan,

egun edo orduka lan egiteko. ☎ 630381 (Esperanza)

LANA

302 ESKAINTZAK

Pelukeria titulua duen Lesakako neska bat eskaintzen da pelukeria batean lan egiteko. ☎ 637136.

Neska behar da egun erdiz jendaurrean lan egiteko Donezteben. ☎ 450163

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELETRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Fiat tipo salgai. 3 ate, NAAK, egoera onean. ☎ 630-069 (eguerditan).



ADOS

ZURE KONFIDANTZAKO INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk.

DONEZTEBE

AZKEN NOBEDADEAK

ZUBIETA

- Azken pisu berria AZKENA

DONEZTEBE

- Pisu bat moldatzeko
- Bajera eder bat Donezteben bertan
- Nabe-pabilioiak
- Ekaitza Ostatua

LEGASA

- 70 m²ko bajera EDERRA

NARBARTE

- Pisu-etxea baratzearekin MOBLEZTATUA-MERKEA

LEITZA

- Pisu bat EROSI NAHI DA

ELIZONDO

- Saskaitz Plazan dagoen pisua AUKERA
- Eginen diren Babes Ofizialeko Pisuak

IGANTZI

- Pisu berri-berriak MAUKA
- Etxe elkar-itsekiak estreinatzekeo

LESAKA

- BIZKANTXE Pisu eta garaje berriak
- Bajera arras prestatua salgai. 5.

BERA

- EGUZKI Etxea eta ostatua salgai
- Pisua salgai Eztegaran
- Pisu ia-berria ONA AUKERA

MUGAIRI

- Kanpoaldeko pisua salgai EGU
- Nabe-pabilioiak salgai

AUDI SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko diesel eta gasolinazko autoetan aukera zabala

- Audi TurboDiesel
- Volkswagen Vento
- Peugeot 106
- Peugeot 309
- Seat Panda
- Ford Fiesta XR2, 3 ate
- Seat Ibiza (2)
- Seat Cordoba Diesel
- Fiat Uno
- Mitsubishi Pajero

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Honda CR-500 krosekoa salgai. 92. urtekoa. ☎ 397-015. (Gauetz, Xabier).

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Renault Super-5
- Clio Diesel 3 urtekoa
- Peugeot 205
- Suzuki Vitara labor eta luzeak
- Furgoneta MD-140

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:

- Nissan Patrol Top-Line
- Citroen BX TRD ABS, SS-AC
- Ford Fiesta, NA-V
- Nissan Patrol, NA-P
- Opel Kadett D, NA-O

Gas-Gas motoa salgai, 370 modeloa, 1996koa. Erabili gabea. ☎ 630793 (1etatik 2etara).

Nissan markako kamioia, 90 zaldikoa. Bolketea eta

tarjeta badu. ☎ 637210 arratseko 8etatik aitzinera.

Ford ZALAIN MOTOR

☎ 63 11 57 • BERA

Stocean dauden ibilgailuen

LIKIDAZIOA

Prezio bikainak: 50.000 ptatik goiti

Dieselak

Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.
Ford Courier Combi lagunduriko direkzioa, 95koa.

Gasolina

Ford Escort XR3 3 ate, 86koa.
Ford Fiesta 1.1 5 ate, 89koa.
Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.
Ford Escort RS 1.6 3ate, 91koa.
Renault 11 1.7 5 ate, 86koa.
Ford Orion 1.4 4 atekoa.
Rover Montego 2.0 4 ate, 90koa.
Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.
Renault 11 1.4 5 ate.

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

4 ahari muturgorri salgai ☎ 504498

Ahari eta ardia salgai. Naño arrazakoak. Ahuntz nañoak ere bai. ☎ 07.33.5-59542254 (arratseko 8,30etatik aintzina).

Urte terdiko zaldia salgai. Hazitarako egokia. ☎ 943-491867.

Kotorra (hegaztia) salgai. ☎ 615040 (Jabier).

Hiru urteko aharia salgai. Oso ongi zaindua. 25.000 pezeta. ☎ 510204.

URTEBETETZEAK

ttipi-ttapa

Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA



Endara Mitxelena Rekondok 11 urte bete ditu martxoaren 24an. Zorionak etxekoan partez gure kilkir alaiari.



Oihan Olaiola Otxoteko lesakarrak 4 urte bete ditu martxoaren 27an. Zorionak zure familiaren partez.



Xabier Barrutia Elizalde beratarrak 11 urte egin ditu martxoaren 20an. Zorionak aita, ama eta arre-baren partez.



Dolores Mitxelena goizuetarrak 85 urte beteko ditu martxoaren 29an. Zorionak familia guziaren partez. Aupa amona!



Ibai De Mateo Zozaia leitzarrak maiztaren 30ean beteko du urtea. Aunitz urtez zure familiaren partez.



Josu Larretxea Larralde arantzarrak apirilaren 4ean beteko ditu urteak. Zorionak etxekoan partez.



Ainhoa Ibarra Jauregi irurritarrak 9 urte egin ditu martxoaren 20an. Zorionak bere familiaren partetik.



Beñat Irazoki Altzurguren etxalartarrak martxoaren 25ean bete ditu 10 urte. Zorionak Maitane eta Unaiaren partez.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.

Behiak saltzeko dauzka-gu, esnea saltzetik utzi du-gu-eta. ☎ 387006 (arratseko 8etatik 9,30etara).

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Bainu moglea salgai, es-trenatu gabea. 90 zm.koa, bere marmolezko enzime-rarekin, grifo, ispilu, putzu

eta bisera. Prezio onean ☎ 580570

Akumuladore estatikoa salgai, fagor markakoa. 3 kw. Erabili gabea. Merkea. ☎ 627642 arratsetan.

Lurra iraultzeko Rotabator makina salgai. Egoera onean. ☎ 630985.

Esne tankea salgai. Lau garrafakoa eta urarekin era-biltzen dena. ☎ 634037.

Pal-Secam bideoa salgai.

Gutti erabilia. ☎ 637050 Bulego orduetan.

Intxaur landareak salgai. Ttikiak eta haundiak. ☎ 943.671053.

Komertziorako diru kutxa salgai. Erabili gabea. ☎ 637034. Jabier.

Gasoi deposito bat salgai. 200 litrokoa eta meta-lezkoa. Egoera onean. Merke. ☎ 631239.

MAILEGUAK (Prestamoak) ESKATZEKO LAGUNTZA

- Zeintzuk diren merkeenak
- Nola eta norekin hitzegin
- Aseguruetan, zein aukeratu

KONTRATUAK IDAZTEN DITUGU

- Salerosketa kontratuak
- Errentan hartu-emateko kontratuak
- Eskualdatze edo traspaso kontratuak

LEGE-ARAZOAK ZUZENTZEN DITUGU

- Errenta zaharrak
- IPC
- Eskriturak

ETXE-ALDAIRAK EDO MUDANTZAK EGITEN DITUGU

- Edozein egunetan, besta egunak eta lgandeak barne
- Merke eta seguruak

ETXEKO OBRAK

- Igelitso, iturgin, zurgin, pintore...
- Edozein konstrukzio mota
- Aurrekontuak eskatzea libre

BASERRIAK, BORDAK, ETXEAK EDO LUR EREMUAK EROSI NAHI DIRA

- Bortzirriak, Malerreka eta Baztanen
- Frantzia aldera
- Ultzaman, Basaburuan...
- Eskura ordaintzeko



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

☎ 631188

URTEBETETZEAK

Sail hau debaldekoa da.

Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa

Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Nekane Retegi
etxalartarrak 22 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak zure kuadrilaren partez.



Joxe Antonio Zugarramurdi
Elizondok maiatzaren 19an beteko ditu urteak. Zorionak zure Euskal Herriko familiarren partez.



Bittoriano Zelaieta
igantziarrak martxoaren 21ean bete ditu urteak. Zorionak zure semealaben eta Jonen partez.



Izaskun Iparragirre
beratarrak martxoaren 21ean bete ditu urteak. Zorionak bere lagunaren partez.



Bony Zelaieta
martxoaren 21ean egin ditu urteak. Zorionak zure familiarren partetik.



Oihana Tellexea
Garmendia donamariarrak 8 urte bete ditu martxoaren 25ean. Zorionak familiarren partez. Muxu bat.



Iratxe Labiano
Anzizarrek urteak beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak Manuel, Maite eta Ixasoren partez.



Aritz Tellexea
Anzizarrek martxoaren 27an beteko ditu urteak. Juan Jesus, Begoña eta Ikerren partez, zorionak.



Itsaso Elizagoien
Bizentek apirilaren 4ean 2 urte eginen ditu. Zorionak bere familiarren partez.



Irune Elizagoien
Bizentek martxoaren 19an 4 urte beteko ditu. Zorionak bere familiarren partez.



Zorionak Olaia! zure 9. urtebetetzean, Leitzako amona, izeba-osaba eta lehengusu guztiaren partez. Muxu bat Ebartar honi.



Patrizia Etxegarai
Altunak 2 urte egin ditu martxoaren 7an. Zorionak guraso eta Ion eta Ander lehengusuen partez.



Elena Fernandez
gasteizarrak 29 urte egin ditu martxoaren 21ean. Zorionak guraso eta ahizparen partez.



Marlene Otero
Perez doñeztebarrak 5 urte bete ditu hilaren 19an. Daniel, Veronica, M^o José eta gurasoen partez, zorionak.



Gurutze Andueza
Ostolaiz beratarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 7an. Zorionak, Oier eta He-goaren partetik.



Iratxe Irueta
Pikabea beratarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 13an. Zorionak familiarren partez.



Itziar Iantzi
Irungarai elizondarrak 10 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak zure familiarren partez.



Ioanes Zeballos
Mitxelenak apirilaren 1ean beteko ditu hamar urte. Zorionak familiarren partez.



Leire Urkiola
Gordobil leizarrak martxoaren 19an 10 urte bete ditu. Zorionak zure familiarren partez.



Juan Pedro Bertiz
etxalartarrak 67 urte eginen ditu apirilaren 12an. Zorionak zure familiarren partez.



Ana Mari Soria
etxalartarrak 64 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak zure familiarren partez.



Andoni Zozaia
Uruegik 2 urte beteko ditu martxoaren 27an. Zorionak eta musu handi bat familiarren partez.



Ioseba Apeztegia
Larroque sunbildarrak 14 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak bere familiarren partez.



Imanol Apeztegia
Larroque sunbildarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 17an. Zorionak bere familiarren partez.



Arantxa Zubietza
Ameztoy etxalartarrak 22 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak senarrak, Ana eta Juan M^oren partez.



Antxel Elgorriaga
Uterga lbaringoak 20 urte beteko ditu martxoaren 31an. Zorionak zure familiarren partez.



Marian Musgo
Dominguez beratarrak 4 urte eginen ditu martxoaren 28an. Zorionak aita eta amaren partez.



Xabier Odriozola
Agirre leizarrak 4 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu bat Leitzako familiarren partez.



Xabier Iparragirre
Zabaleta leizarrak martxoaren 20an egin ditu 4 urte. Osaba-izeba eta aiton-amonen partez, zorionak.



Irati Iparragirre
Barriola leizarrak martxoaren 31an beteko ditu 9 urte. Zorionak aiton-amona eta osaben partez.



Alvaro Perez
Aragon doneztebarrak 3 urte eginen ditu apirilaren 11an. Zorionak Idoia eta familiarren partez.



Francisco Arriada
Organbide gartzaindarrak apirilaren 6an eginen ditu urteak. Zorionak familiarren partez.



Uxue Iruruetza
Zinkunegi elgorriarrak martxoaren 26an bete ditu 9 urte. Familia guztiaren partez, zorionak pottoka!



Josema Iriarte
beratarrak urte bat gehiago beteko du apirilaren 8an. Zorionak Izei eta Jasoneren partez.



Mikel Goienez
Pikabea beratarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 3an. Muxu handi bat gurasoen eta arrebaren partez.



Itsaso Bereau
Mazizior aranztarrak apirilaren 5ean 15 urte eginen ditu. Zorionak zure lagun baten partez.



Jon Sein
Osinaga doneztebarrak martxoaren 20an egin ditu 3 urte. Zorionak zure familiarren partez.



Bego Olazar
elgorriarrak apirilaren 16an ia-zkoan baino urte bat gehiago beteko du. Zorionak eta muxu bat familiarren partez.



Mattin Larralde
aranztarrak martxoaren 20an 31 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat zure emaztea eta semearen partez.



Aitor Labandibar
irundarrak apirilaren 5ean 16 urte beteko ditu. Aunitz urtez, Lesaka eta Igantziako familiarren partez.

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

Enbotatzeko pote tikiak eta haundiak emanen nitzuzke. ☎ 387017.

Kitarra eta baxu klaseak ematen ditut. ☎ 630217 Fer-

min.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Josu Ruiz Galarza: Mila esker lagun ona zarelako. Zure laguntza gabe ez nuke lortuko. N.A.ren partez.

Jose M^a Lentejo: zorionak martxoaren 24ean urteak egin dituelako. Lesakako 6 Maria eta Cirilo.

Txaro edo sarito! Zorionak zure ez dakit zenbatgarren urtebetetzean. Muxu bat Leitzar gazte honi bere senide guztiaren partez. **Leitzako** ESOk lehenbi-

ziko mailako neskei. Isilik egoten ez bazarete nik isilaraziko zaituztet. A.Z.

Lesakako Monica G.ri: ez izan hain ergela.

UTZI ZURE ETXEAREN ZAHARBERRITZEA
EGIAZKO ESPEZIALISTEN ESKU



GAZTAÑAGA
ATEAK eta LEIHOAK



PVC LEIHOAK



Erakusketak:

- Luis Mariano • **IRUN**
Tfnoa: 943 - 62 58 88
- PRYCA Merkatal Zentrua • **OIARTZUN**
Tfnoa: 943 - 49 25 97



AMAIUR



DONEZTEBEko sarreran ☎ 948.450400



Udaberriaren alaitasuna
aprobetxatuz, anima
zaituz zure etxeko
sukalde eta bainuak
aldatzera.
Horretarako Doneztebeko
AMAIUR Altzariak prest ditu
modelo berriak.
Etorri eta ikusi.

LANBIDE HEZIKETA,
BATXILERGOA edo DBH
nahi baldin baduzu...

TOKI ONA
BERAko
INSTITUTUAN



AURREINSKRIPZIOAK: Apirilaren 7tik 18ra

INFORMAZIOA:

MENDAUR MOTOR

Leitzako errepidea
© 948 - 45 03 33
DONEZTEBE

SUZUKI Baleno modelo berriak.
Ekipamendu osoa. Gasolina 1.6 - 16v.
OPEL Vectra Caravan modelo berria.
Gasoil eta gasolina.
OPEL Sintra Monovolumen.
Gasoil eta gasolina.

